| ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA | | AURKIBIDEA |
|---|---|---|

**1. PLANA ERATZEAREN KOMENIGARRITASUNA, BIDEZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA .............. 3**
**1.1. PLANA ERATZEAREN KOMENIGARRITASUNA 3**
**1.2. PLANA ERATZEAREN BIDEZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA 3**
**2. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK .............. 5**
**2.1. HELBURU OROKORRAK 5**
**2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK 5**
2.2.1. INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK .............. 5
2.2.2. EKIPAMENDUEI BURUZKO HELBURUAK .............. 6
2.2.3. BIZITEGI-ERABILEREI BURUZKO HELBURUAK .............. 6
2.2.4. LURZORU URBANIZAEZINARI DAGOZKION HELBURUAK .............. 7
2.2.5. JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUEI DAGOZKIEN HELBURUAK .............. 7
2.2.6. AZPIEGITUREI BURUZKO HELBURUAK .............. 7
2.2.7. KULTURA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREARI BURUZKO HELBURUAK .............. 7
**3. HAUTATUTAKO EREDUAREN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA .............. 9**
**3.1. ANTOLAMENDUA EGITURATUKO DUTEN SISTEMA OROKORRAK 9**
**3.2. INGURUNE FISIKOA ETA ONDAREA BABESTEA 9**
3.2.1. INGURUMEN FISIKOA BABESTEA .............. 10
3.2.2. ONDAREA BABESTEA .............. 12
**3.3. BIZITEGI ASENTAMENDUAK 12**
**3.4. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA TERTZIARIOETARAKO ASENTAMENDUAK 13**
**3.5. HIRI LURZORUAREN ANTOLAMENDUA 13**
**3.6. LURZORU URBANIZAGARRIAREN ANTOLAMENDUA 13**
**3.7. LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUA 14**
**4. PLANAREN EGITURAZKO ANTOLAMENDUA .............. 17**
**4.1. JARDUKETA INTEGRATUAK 17**
**4.2. GUNE HISTORIKOA 17**
**4.3. ERAIKIGARRITASUN ESTANDARRAK 18**
**4.4. SISTEMA OROKORREN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK 18**
**4.5. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 18**
**4.6. IRAKASKUNTZA-EKIPAMENDUAK 19**
**4.7. ZUZKIDURA-ETXEBIZITZAK 19**
**5. PLANAREN ANTOLAMENDU XEHATUA .............. 21**
**5.1. HIRI-LURZORU FINKATUA 21**
**5.2. HIRI-LURZORU FINKATUGABEA 21**
**5.3. LURZORU URBANIZAGARRIA 21**
**6. AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA .............. 23**
**6.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA 23**
**6.2. HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA 24**
6.2.1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA .............. 24
6.2.2. EBALUAZIO PROZESUA .............. 25
6.2.3. ERAGINAREN IRISMENA .............. 25
6.2.4. HIZKUNTZA INPAKTUAREN INTENTSITATEA .............. 26
6.2.5. FUNTSEZKO ALDERDIEN AZTERKETA .............. 28
6.2.6. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK .............. 35
6.2.7. ERANSKINAK .............. 36
**7. GENERO-ERAGINARI BURUZKO AZTERLANA .............. 39**
**7.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA 39**
**7.2. MUGIKORTASUNAREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK 39**
**7.3. IRABAZIZKO ERABILEREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK 40**
**7.4. ZUZKIDUREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK 40**
**7.5. SEGURTASUNAREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK 40**
**7.6. ONDORIOAK 41**
**8. HAURTZARO ETA NERABEZAROAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AZTERLANA .............. 43**
**8.1. SARRERA 43**
**8.2. HAPOREN ORDENAZIOAREN AZTERKETA HAURTZAROA ETA NERABEZAROAREN IKUSPUNTUTIK 43**

8.3. HAURTZAROAREN ETA NERABEZAROAREN ESKUBIDEAK 44
8.4. HIRIGINTZA ORDENAZIOAK HAUR ETA NERABEEN GAIN DUEN ERAGINA 45
8.5. TXOSTEN PROPOSAMENA 45
9. JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN AZTERKETA ........ 47
9.1. SARRERA 47
9.2. OTSAILAREN 21EKO 4/2019 LEGEAREN APLIKAZIOAREN AZTERKETA 47
9.3. PLANAK HARTUTAKO NEURRIAK 49
10. ABIAZIO ZIBILARI BURUZKO 2591/1998 ERREGE DEKRETUAREN BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIKO ZEHAZTAPENEN BETETZEA ........ 51
10.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA 51
10.2. ERABILI BEHARREKO IRIZPIDEAK 51

# ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

## 1. PLANA ERATZEAREN KOMENIGARRITASUNA, BIDEZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA

### 1.1. PLANA ERATZEAREN KOMENIGARRITASUNA

Alkizako Arau Subsidiarioen hirigintza-egikaritzapenerako unitate guztiak garatu dira. Plangintzan aurreikusitako bizitegi-lurzoru guztiak (eta hedapenez hiri-erabileretarako aurreikusitako zoru guztiak), oso-osorik garatu direla, eta ez dagoela ezer egiteke. Beraz Alkizako bilakaerari hirigintzako oinarria eman nahi bazaio beharrezkoa da plangintza orokorra berritzea, herrriaren beharrei erantzun diezaion.

Horren gain, oraindik indarrean dauden Arau Subsidiarioak izapidetu eta onartu zirenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea onartu zen, egun indarrean jarraitzen duelarik. Bere bigarren xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoan ezartzen denez, udalerri guztien plan orokor eta arau subsidiarioak lege horren zehaztapenetara egokitu behar dira, eta gehienez ere zortzi urteko epean onartu beharko dira behin betiko. Beraz, plangintza dagoeneko egokituta egon beharko luke.

Alkizako plangintza orokorra berrazteertzeko ezinbestekotasunari argudio gehigo emateko, Tolosaldeko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren gauzatzeak eta ingurrumena kontutan hartzen duten araudi sektorialen aldaketek eta ordezpenek eta 2012an Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak, Alkizako udalerriko hirigintza-antolamenduaren irizpide orokorrak berrikustea gomendatzen dute, landa-lurzoruak eta horien gainean ezarri beharreko babes-mailak berdefinitzearen garrantzia bereziki azpimarratu behar delarik.

### 1.2. PLANA ERATZEAREN BIDEZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA

Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legeko102 artikuluak, “Hirigintza-antolamenduko planak berrikustea: kontzeptua eta egokitasuna”, honela dio bere lehen puntuan:

> *“Hirigintza-planek ezarritako antolamendua eta, nolanahi ere, plan orokorren egiturazko antolamendua erabat erraztertzeko, beharrezkoa izango da antolamendu hori berrikustea. Antolamendua berrikusi beharra izango da, orobat, lurralde-plangintzak hiri-garapen berrietarako hala eskatzen duenean eta garapen berriek funtsezko eragina dutenean egiturazko antolamenduan”.*

Horren gain, lege bereko 104 artikuluan, “Hirigintza planek ezarritako antolamendua aldatu eta berrikusteko prozedura”, hau irakur daiteke:

> *“Hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da”.*

Beraz lehengo atalean aipatutako plangintzaren egoerari erantzuteko a Alkizako aurreko arau subsidiarioak berrikustea beharrezkoa da. Hori egiteko horien mailakoa plana erabili behar da, hau da, egiturazko antolamendua definitu dezakeen plana. 2/20006 legean udalerrri mailan hori egin dezakeen plan bakarra Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) da, 59 artikuluak xedatzen duenez.

Bukatzeko 2/2006 legeko 90 artikuluak, “Plan orokorra egin eta izapidetzea”, honela dio: “Udalari dagokio plan orokorra egitea”.

Beraz Alkizako Udalak garatu behar duen plangintzarako, aukeratu duen plan mota, HAPO, egokia da legearen ikuspuntutik, eta legeak berek hori gauzatzeko eskumena ematen dio Udalari.

**ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

# 2. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Jasotako informazioaren, egindako hasierako diagnostikoaren, planteatutako alternatiben, parte-hartze publikoaren, bildutako txostenen, udalbatzaren erabakien eta, azken batean, orain arte jarraitutako prozesuaren ondorioz, Plan Orokor hau egiteko kontuan hartu beharreko funtsezko helburuak hurrengo azpiataletan aipatzen dira.

Irizpide horiek ez dute kontraesanik orain arte Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren proposamenak bideratzen zituztenekin (Alkiza plan horretan sartuta dago).

Hala, plangintzak lurralde-antolamendutik aipatzen den ereduari erantzuteko erronkari heltzen dio, hirigintza-antolamenduko zehaztapenak zehaztuz, aurretik zeudenak kontuan hartuta beharrezkoak diren erabilerak erregulatuz eta lurraldean integratuz, eta adierazitako irizpideei eta helburuei erantzunez.

## 2.1. HELBURU OROKORRAK

Plangintzak erantzun beharreko lurzoruaren antolatzearen eskakizun berriak zorrotz aztertu, bideratu beharreko garapenen gehiegizko dimentsionamendua saihestu eta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialen eta Sektorialen zehaztapenetara egokitu.

Ahal den neurrian, hazkunde demografikoa eta lurzoruaren artifizializazioa banantzen saiatzea, hirigunean dauden lurzoru antropizatu gutxi horiek berrerabiltzea sustatuz eta horri lehentasuna emanez, urbanizatu gabeko lurzoru naturalak erabat artifizializatu beharrean.

Alkizako plangintza koordinatzea, bai Lurralde Antolamenduko tresnekin (LAA, LAP, LPS, etab.), bai udalerri mugakideetako plangintzarekin.

## 2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

### 2.2.1. INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK

Ingurumen-kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, zuzenketaren eta konpentsazioaren gainetik, zuzeneko eta zeharkako eraginak murriztuz.

Eskura dauden baliabide hidrikoak eta lurraldearen karga-ahalmena kontuan hartzea lurzorua dimentsionatzeko/sailkatzeko/kalifikatzeko orduan.

Baliabide eta ingurune hidrikoak babestu, zaindu eta lehengoratzea: lurpeko edo lurrazaleko ur kontinentalak eta iturburuak.

Garapen berriek ingurumenean duten eragina minimizatzea, urbanizatu beharreko sektoreen kokalekuak eta diseinuak ahalik eta gutxien oztopatuz, hala nola arrisku naturalak (malda handiko eremuak, etab.) edo arrisku teknologikoak (sute- edo ihes-arriskua duten jarduerak, etab.) dituzten lekuak, intereseko habitat naturalak edo paisaia-kalitateko eremuak, dibertsitate biologikoari eta habitat naturalei eusteko, horiek hiri-garapenetik babesteko eta/edo naturaguneak hiri-bilbean integratzeko.

Dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea, Batasunaren intereseko habitaten eta gune babestuen funtzionamendu jasangarria babestuz eta leheneratuz, baina, aldi berean, horietatik kanpoko eremuen nahikotasuna, koherentzia eta konektibitatea babesteaz ahaztu gabe. Ildo horretan, landaredia kontserbatuko da, bereziki basoak eta ibaiertzeko landaredia, eta zaindu egingo dira lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta arriskuan dauden flora eta fauna-espezieen puntu sentikorrak, kudeaketa-plana izan edo ez.

Paisaiaren faktorea plangintzan txertatzea, haren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala.

Ingurune garbi eta osasungarria bermatzea, airearen kalitatea hobetuz.

Bai eraikuntzak oro har (eraikinak, egiturak, urbanizazioa) bai haren funtzionamenduak eragindako baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta poluitzaileen balantzean eragin negatiboa murriztea, zikloak ixtera bideratuta.

### 2.2.2. EKIPAMENDUEI BURUZKO HELBURUAK

Ekipamendu berrien beharra kuantifikatzea eta justifikatzea.

Behar diren ekipamenduak garatzea, tokikoak zein udalez gaindikoak. Horretarako, ondare eraikia eta urbanizatua birgaitzea, hiria eraldatzeko eta berroneratzeko behar diren esku-hartzeak bultzatuz.

Errepide- eta zerbitzu-azpiegiturak ezartzea (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria, saneamendua, etab.), udalerriaren irisgarritasuna eta lurralde-testuinguruaren integrazioa bermatzeko.

### 2.2.3. BIZITEGI-ERABILEREI BURUZKO HELBURUAK

Hiri-eremu berria ezartzea, ahal den neurrian, urbanizaziotik gertu eta egungo hiri-bilbean oinarrituta, garraio publikoaren, oinezkoen eta bizikleten bidezko mugikortasun jasangarria ahalbidetzeko, eta azpiegitura (bide) eta zerbitzu (hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia, hondakinen bilketa, etab.) berrien beharra minimizatzeko.

Udalerriak habitat gisa duen oinarrizko izaera indartzea, etxebizitza oinarrizko eskubide gisa bermatuz, kokapenari, kantitateari, irisgarritasunari, kalitateari eta prezioari dagokienez baldintza egokietan.

Biztanleria egoiliar gaztea finkatzea, eta, horretarako, lurzoruaren eskaintza nahikoa eta kontrolatua sortzea, kokapenari, prezioari eta tipologiari dagokienez baldintza egokietan, aurretik daudenekin eta lurraldearen egokitasunarekin bat etorriz.

Udalerriaren gizarte-ongizatea hobetzea, herritarren integrazioa, kulturarako eta hezkuntzarako sarbidea, zuzkidurak, ekipamenduak, bizilekua eta biztanleen gainerako oinarrizko eskakizunak bermatuz, eta, aldi berean, kontsumoa kontrolatuz, gizarte-ongizatea murriztea ekarriko ez duen oreka bilatuz.

Proposatu beharreko konponbideak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin integratzea eta koordinatzea.

Hiri-erabileretara bideratutako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, lurralde-planetatik eratorritako beharrei zorrotz erantzutera mugatuz eta lehendik dagoen hiri-eremuak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz. Horretarako, hiri-lurzoruko zuzkidura-jarduketak bultzatuko dira, eraikigarritasun haztatua handituz.

Hiri-eremuko lurzoruaren erabilerak arautzea, aniztasuna eta mistoa bultzatuz, betiere bateragarriak badira.

Egin beharreko bizitegi-garapen berria kuantifikatzea, kokatzea eta ordenatzea, lehendik zeuden gunetzat hartzen diren kokalekuekin batera, eta tokiko berezko irtenbide tipologikoen bidez ezartzea aurreikustea, horrek dakarren lurzoru-kontsumoaren proportzioarekin batera. Horretarako, hazkunde berria ezarriko da, egungo bide-bilbeen eta azpiegituren ondoren.

Dentsitate ertaineko hiri-eremu dentsoagoak, trinkoagoak eta askotarikoagoak lehenestea, ahal den neurrian dentsitate oso baxuko bizitegi-garapen berriak eta etxebizitza isolatu edo atxikien tipologia saihestuz, Alkizako hiri-bilbe finkatuan planteatutako jarduketa txikiak izan ezik, horiek hiri-eredu sakabanatua, lausoa eta lurzoruaren, energiaren eta materialen kontsumitzaile handia sustatzen baitute. Horretarako, Lurzoruaren Legearen estandarretara egokitutako dentsitateak dituzten eta, beraz, blokean irekitako eraikuntzan garatzen diren sektoreak diseinatuko dira.

### 2.2.4. LURZORU URBANIZAEZINARI DAGOZKION HELBURUAK

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (eta dagokion jarduera sustatuen, onargarrien eta debekatuen matrizea aplikatzea), Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko LPPan eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritako antolamendu-kategorien bidez, landa-ingurunea babesteko, haren garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen eginkizunaren (lehengaien hornidura, ingurunearen kontserbazioa, etab.) eta ingurumen- eta paisaia-kalitatearen baldintza egokien arteko oreka bilatuz.

Landa-lurzoruan esku hartzeko, erabiltzeko eta eraikitzeko araubidea arautzea, ingurune horren berezko balioak babestuz, biodibertsitatea bultzatuz eta, aldi berean, haren produktibitatea sustatuz, lehen sektorearen garapenari, kalitate bereziko lurraldeaz gozatzeari eta paisaiaren antolamenduari lotuta.

Landa-ingurunean dauden eraikinen erabilera arautzea, lurraldearen ezaugarrien kontserbazioa bermatuko duten neurriak sustatuz, dauden eraikinak hainbat etxebizitzatan zatituz.

Baserriak beren lursailetatik bereiztea eragotziko duten arauzko neurriak ezartzea. Horretarako, lehendik dauden eraikinei lotutako lurzati minimo eta zatiezinak arautuko dira.

Landa-lurzatiak 10.000 m²-ra arte bereiztea ahalbidetzea, landa-ingurunea koniferoen landaketa masiboetatik babestuz.

Paisaia- eta ingurumen-balioen babesa arautzea.

Paisaiari balioa ematea, faktore ekonomiko bereizle eta baliabide turistiko gisa.

Kultura-bide tradizionalei balioa ematea, paisaiarako irisgarritasun- eta gozamen-puntu bikain gisa.

### 2.2.5. JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUEI DAGOZKIEN HELBURUAK

Industriako edo hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak finkatzeko lurzoruak definitzea, antropizatu gabeko lurzoru-okupazio berriak ezabatuta. Horretarako, ez dira birsailkatzen jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak.

Udalerrian dauden jarduera ekonomiko industrialen, komertzialen edo tertziarioen erabilerak finkatzea.

### 2.2.6. AZPIEGITUREI BURUZKO HELBURUAK

Udalerrian azpiegiturak ezartzea hobetzea eta bultzatzea, batez ere teknologia berriekin lotutakoak.

Epe luzera hirigunearen ordezko bide bat gauzatzerik egon dadin, egungo trafikoak arintzeko eta plazaren, udalaren, elizaren eta abarren ingurunea aldi baterako edo behin betiko oinezkoentzako bihurtzeko aukera egon dadin, ordenazio berriarekin aukera hori ahalbideratzea eta horren zatia izan daitekeen bide sistema abiatzea,.

Espazio publikoak hobetzeko neurriak ezartzea, urbanizazio-jarduketa arrunten bidez.

### 2.2.7. KULTURA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREARI BURUZKO HELBURUAK

Tokiko ondare arkitektonikoa balorizatzen eta kontserbatzen lagunduko duten arauzko neurriak ezartzea, batez ere jatorrizko baserriei, balioa duten eraikin erlijiosoei eta egitura megalitikoei lotutakoak.

**ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

# 3. HAUTATUTAKO EREDUAREN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

## 3.1. ANTOLAMENDUA EGITURATUKO DUTEN SISTEMA OROKORRAK

HAPO honetan aurreko arau subsidiarioetan aurreikusitako sistema orokorrak mantendu dira, bi izan ezik, hiri-lurzoruan dauden bi elizak, ez baitira eraikin publikoak. Zuzkidura pribatuen eran duten garrantzia ez da ukatzen. Zenbait ekimen publikoetarako erabilgarriak eta aproposak badira ere, haien erabilera jabea den Eliza Katolikoaren menpe dago, eta beraz, herriak beharko lukeen egituratze beregainerako ez dute balio.

Eraikin publikoei dagokionez, Erretoretxe eraikina dagoeneko guztiz publikoa da eta zenbait zuzkidura kultural eta sozialetarako erabiltzen da normaltasunez.

Publikoa izatera pasa den beste eraikina udaletxearen ondoan dagoen Donjuanena da. Sistema orokorren baitan sartu da.

Bideei dagokionez, aurreko arau subsidiarioen aldaketaren bitartez definitu zen Perualdeako 1. Sektorean, plan partzialak aurreikusitako eta ondoren gauzatutako kalea, sistema orokorra egin dugu ere. Era honetan, hiri-lurzoruko mota guztietako bide, espaloi eta aparkaleku publikoak sistema orokorretan integratuta geratu dira. Salbuespen bakarra 2. Eremukoa da. Honen bidea publikoa izan arren, bertan dauden bi eraikinak zerbitzatzeko balio du nagusiki, eta noizbehinka frontoira materaialak eramateko. Ez du jarraitutasunik eta bideen sarean mutur itsua da.

HAPO honek aurreikusitako garapenerako beharrezkoa da Espazio libreen sistema orokorrak handitzea Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legaren78 artikuluak xedatzen duena betetzeko. Hori egin ahal izateko, gestio publikoa izango duen 6. Sektorean espazio libreen sistema orokor bat aurreikusi da. Sektoreak udalerriko garapen nagusia hartzen du, 30 etxebizitza berrietatik 26 ordenatzen dira sektorean. Beste lauak hiri-lurzoruko bi zuzkidura-jarduketa txikitan ordenatu dira. Barruti hauek tamaina txikikoak dira eta ez dute azalera nahikorik egin beharreko lagapenak barruan egiteko, eta beraz, lagapen horien balioa monetarizatu egingo da. Barruti bi horiei dagozkien espazio libreen sistema orokorrerako dirua Udalak baliatuko du 6. Sektoreko Espazio Libreen Sistema Orokorra osatzeko, honen tamaia garapeneko hiru barrutien eskaera estaltzeko diseinatu delako.

Azpiegiturei dagokienez, udal zerbitzukoak direnak jasangarritasuna bermatuta daukate, ez bakarrik ekonomikoki, HAPO honen D Dokumentuan frogatzen denez, baita zerbitzatzeko ahalmenari dagokionez ere.

Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 18. Artikuluko, 10. Atalean Oria ibaiaren erdialdeko 24 udalerriei, haien artean Alkiza, biztanleen kontsumorako ur-hornidurarako 2,67 $hm^3$/urte esleitzen die, gauregun erabiltzen dituzten ur-baliabide lurazaleko eta lurrazpikoetatik hartu behar direnak. Kantitate horrek baliabide horien emari ekologikoa bermatzen du planaren arabera. Herri bakoitzerako batez-besteko biztanleen kontsumorako emaria 112.500 $m^3$/urte da. Alkizak egun daukan biztanleen kontsumorako eskaera 41.109 $m^3$ da. HAPO honek eragingo lukeen eskaera gehitua 5.800,6 $m^3$/urte da, D Dokumentuko 2.3.1.1 puntuan kalkulatzen denez. Guztira 46.909,6 $m^3$/urte lirateke, Alkizak har dezakeen emaritik oso azpitik.

Ur-beltzen arazketaren aldetik, Alkizak duen tratamendu biologikoko planta 300 lagunen hondakin likidoak tratatzeko dimentsionatuta dago. Herriguneko etxebizitzak zerbitztzen ditu. Herrigunean 2022koak diren azken datuen arabera 195 biztanle daude, 68 etxebizitzetan. Beraz, 2,87 biz./etxe.. 30 etxebizitza berri aurreikusten ditu HAPOk herrigunean, 86 biztanle berri lirateke. HAPO-ren aurreikuspenak gauzatu ondoren herrigunean 281 biztanle leudeke, araztegiaren zerbitzu-ahalmenaren azpitik.

## 3.2. INGURUNE FISIKOA ETA ONDAREA BABESTEA

### 3.2.1. INGURUMEN FISIKOA BABESTEA

Proposatzen den HAPOak ingurumena babesten du eta jasangarritasuneko irizpideak jarrraitzen ditu..
Testuinguru horretan, lehentasunezko jarduera-ildoak atmosfera, airearen, uraren, lurzoruaren, paisaiaren, biodibertsitatearen, kultura-ondarearen eta osasunaren kalitatea babestera bideratuta daude, eta, horren arabera, hainbat proposamen eta neurri planteatu dira.

Klima-aldaketaren arazoari heltzeko, egungo irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak hobetu nahi dira, hirigunean mugikortasun motorizatua murriztuz. Energia-efizientziaren eta emisioen murrizteko neurriak hartzen ditu.

Horrela, baliabideen, lurraldearen okupazioaren eta hondakinen kudeaketan efizientzia handiagoa sustatzen da, ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarriagoak bermatzeko, argiztapen publikoaren eta eraikuntzaren efizientzia-baldintzekin; berrerabilera eta birziklapena sustatzeko proposamenekin; baliabideen kontrolarekin (lurzorua, ura, biodibertsitatea...); gaitasun agrologiko handiagoko lurzoruak berreskuratzearekin; landa-ingurunean garapen jasangarria sustatzearekin, besteak beste.

Sistema eta habitat naturalak babestea eta kontserbatzea planteatzen da, baita basaflora eta basafauna ere, biodibertsitatearen desertizazioa eta galera geldiarazteko helburuarekin, landa-ingurunea antolatzeko proposamen sakon eta integral batetik. Proposamen horretan, Alkizako lurraldean dauden ingurumen-balioak babesteaz gain (ura, lurzorua, flora, fauna, paisaia, etab.), ingurumena hobetzeko, leheneratzeko eta lehengoratzeko eremuak proposatu dira, baita erabilera ez-jasangarrien eta landare inbaditzaileen kontrola ere.

Ingurumen-arriskuen kontrola neurri espezifikoen bidez zaintzen da, uholde-arriskuak, higadura-arriskuak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak ahal den neurrian murrizteko, hala eskatu duten eremuetan.

Biodibertsitatea babesteari dagokionez, HAPOk indartu egiten du beren ingurumen-ezaugarriengatik babestu behar diren enklabe guztien kontserbazioa. Gainera, ingurumena hobetzeko irizpideak ezartzen ditu eraldatutako ingurune horietarako guztietarako, eta horiek berreskuratzeak flora- eta fauna-espezieentzako habitat garrantzitsuak berreskuratzea bultzatuko luke.

Lurzoruaren poluzioa prebenitu eta zuzentzeari dagokionez, Alkizako HAPOk lurzoruaren poluzioa prebenitu eta kontrolatzeko printzipio horiek jasotzen ditu, eta kontuan hartuta eremuan kutsatuta egon daitekeen lurzorua duten lekuak daudela, lurzoru horren kalitatea enpresa egiaztatu batekin zehaztuko da. Bere helburu eta abiaburuko irizpideetan arau horien zehaztapenak eta irizpideak txertatzen ditu, eta horien jarraipena egiteko honako adierazle hauek ezartzen ditu:

Kalitate atmosferikoa babesteari dagokionez, HAPO berriak airearen kalitateari buruzko araudiak jasotzen dituen mugak betetzen direla ziurtatuko duten kontrol-neurriak ezartzen ditu. Poluzio akustikoari dagokionez, HAPO berriaren proposamenaren garapena, bereziki kokagune berrietan, edozein motatakoak direla ere, zaratari buruzko araudia kontuan hartuta egingo da. Bizitegi-eremuetan, gauez ezin izango dira 50 dB (Ln) gainditu; eta egunez eta arratsaldez, berriz, 60 dB (Ld eta Le). Indize horiek egiten den garapen motara egokituko dira.

Lurrazaleko eta lurpeko urak babesteari dagokionez, Alkizako HAPO berriak bere araudian ezartzen ditu udalerrian dauden ibilguak babesteko eta, kasu batzuetan, leheneratzeko figurak. Gainjarritako baldintzatzaile aplikagarri guztiak jasotzen ditu: lehentasunezko fluxua, uraldiak. Era berean, akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak aztertu eta antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzen ditu.

Jasangarritasun energetikoari dagokionez, HAPOk alderdi horren azterketa espezifikoa jasotzen du, eta, gainera, proposatutako urbanizazio eta eraikin berrietan eraginkortasun energetikoari buruzko egungo araudiak betetzea proposatzen du.

Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazio-proposamenetik eta hari gainjarritako zenbait baldintzatzaile sartzetik izaera positiboko ingurumen-ondorio batzuk ondorioztatzen dira, natura- eta paisaia-balio nagusiak eta, ondorioz, udal-mugarteko biodibertsitatea kontserbatzeko:

Hernio Gazume KBEaren babes eraginkorra bermatzen da.

Udal-mugartean hedatzen diren intereseko landaredia eta habitat gehienak mantentzea bermatzen da, eta babes bereziko eremu gisa sartzen dira.

Interes handieneko fauna-habitatak zaintzen dira.

Ibai-sarearen kontserbazioa sustatzen da, kategoria espezifikotzat hartuta, Azaleko Uren Babesa, eta Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSko zehaztapenekin bat datorren erregulazioa eginez.

Kultura-ondare arkitektonikoa, arkeologikoa eta etnografikoa babesten da, eta Hirigintza Ondarearen Katalogoan sartzen dira.

Balio agrologiko handieneko lurzoruetarako babes bat ezartzen da, eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Balio Handiko Landazabaleko eremuak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera mugatzen dira,.

Paisaiaren kalitate handieneko eremuak lurzoru urbanizaezinean sartzen dira, eta, beraz, beren kalitatea honda dezaketen garapenetatik babestuta geratzen dira.

Arrisku naturalen aurrean kalteberak diren eremuak zaintzen dira.

Ingurumena hobetzeko eremuak ezartzen dira, ingurumena lehengoratzeko beharra dutenak berreskuratzeko.

Udal-mugartearen azalera osoaren % 99,5 lurzoru urbanizaezina da. Lurzoru urbanizaezineko zonakatzea, oro har, ingurumen-unitateak identifikatzearen emaitza da.

Lurzoru berrien urbanizazioa 0,92 Ha handituko da (proposatzen den lurzoru urbanizagarriko sektore berriari dagokiona), hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruaren % 17 inguru.

Nekazaritzako lurzoruen okupazioari dagokionez, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-proposamenak Nekazaritza eta Abeltzaintza kategoria antolatzen du: 277 ha, KBEan sartuta ez dagoen lurzoru urbanizaezinaren azaleraren % 40 (693,6 Ha + 502 Ha. (KBE)). Kategoria hori "Balio Estrategiko Handia" eta "Landazabala" azpikategorietan banatu da, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezartzen duen bezala. Plan Orokorrak "Balio Estrategiko Handiko" lurzoruak babesten ditu. Horretarako, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean ezarritako mugaketa hartu da oinarritzat, proposamena egin den eskalarik zehatzenera egokitu ondoren. "Balio Estrategiko Handiko" azalera 32 hektareatan hedatzen da, eta horiei balio agrologiko handiko lurzoruak gehitu beharko litzaizkieke, "Azaleko Uren Babesa" kategorian sartzen direnak, Alkizako ibilguetatik hurbil daudelako. “Landazabala”, "Trantsizioko Landa Paisaia" izena ere eduki dezakeen azpikategoriak, bestalde, 245 ha-ko azalera du.

Intereseko habitat eta espezieen babesari dagokionez, Plan Orokorrak "Babes Berezia" kategoria ezartzen du. Kategoria horretan sartzen dira udalerrian kontserbatzen diren baso autoktonoak (baso mistoak, pagadiak, haltzadiak, landaredi kasmofitikoa) eta lehentasunezko intereseko habitatak, hala nola Brachypodium pinnatum espezieko larre mesofiloak, Nardus espezieko formazio belarkarak, espezie ugarirekin, eremu menditsuetako substratu silizeoen gainean, eta Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior espezieetako baso alubialak. Era berean, eta Hernio Gazumeko KBEa babes-maila handienarekin karakterizatzeko, Babes Bereziko Kategoria (KBE) sortu da, KBEaren beraren antolamendu-kategoriekin eta dagokion erabilera-arauketarekin.

Lurrazaleko ibilguetan izandako eraginei dagokienez, ur-masak "Lurrazaleko uren babesa" kategorian sartu dira, eta haren erregulazioa Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibai eta Erreken LPSn ezarrita dago.

"Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak" ere gainjarritako baldintzatzailetzat hartu dira, kalteberatasun handia edo oso handia duten eremuak barne.

Natura 2000 Sarearen gaineko eraginari dagokionez, Plan Orokor honek eragin positiboa izango du eremu horren funtzionaltasun ekologikoari eta koherentziari eusteko, eta HAPO honek proposatutako jarduketek ez dute eragin zuzenik izango Hernio-Gazumeko KBEko naturagunean.

Plan Orokorrak Hernio-Gazume KBErako tokiko babes-araubide berri bat gehitzea aurreikusten du, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritakoa betez. Alkizako udal-mugartearen mugen barruan dagoen KBE honen azalera lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategorian sartu da, "Babes bereziko eremuak- Natura 2000 Sarea" izeneko kategoria batean. Kategoria horretarako, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen eta eremu horrek dituen natura-balioak kontserbatzeko neurriak onartzen dituen urriaren 16ko 219/2012 DEKRETUAK ezartzen dituen kategorizazioa eta erabilera-araubidea ezartzen dira.

Horrekin, Plan Orokorrak indartu egiten du eremu hori babesteko eta zaintzeko indarrean dagoen legeria, baina ez da haren kudeaketan sartzen, Hernio-Gazume KBEaren Kudeaketa Planak arautzen baitu.

### 3.2.2. ONDAREA BABESTEA

Indarrean dagoen hirigintza-legeria jarraituz, HAPO honetako E Dokumentuan Katalogoa definitzen da, ondarearen babeserako indarrean dagoen arloko legerian ezarritako mekanismoen tresna osagarri izango dena.

Katalogoan udalerrian dauden interes historiko-arkitektonikoko eta interes arkeologikoa duten ondasunak identifikatzen dira eta zerrendatzen, arloko legeriak aurreikusten dituen babes baliabideak aplikagarriak izan diezaizkien.

Katalogoa osatzeko lehendik zeuden inbentarioak erabili ditugu; Alkizako aurreko ordezko arauetan jasotako zerrenda, Gipuzkoako foru Aldundiak daukan zerrenda eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak dauzkanak ere, hala nola, monumentuen zerrenda, monumentu izendatzeko proposatuta dauden ondasun higiezinen zerrenda, udal mailan babestuak izateko proposatzen diren ondasun higiezinen zerrenda, balizko arkeologia guneen zerrenda eta babesteko proposatu diren gune arkeologikoen zerrenda.

Horien gain, HAPO honetan definitzen den katalogoan interes antropologiko eta kulturala duten beste elementu fisiko artifizialak sartu ditugu ere, gizakiaren ingurumenaren erabilerarako ezinbestekoak izan direnak eta paisaiaren osagarriak izatera pasa direnak duten historia dela eta, hala nola, herri-bideak, murruak e.a..

Katalogoko elementu arkeologiko eta arkitektonikoak Euskal Kultur Ondarearen 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta hori aldatzen duen 14/2023 Legeak xedatutako erregimenari atxikiko zaizkio, bai eta horiei buruz eman diren edo etorkizunean eman daitezkeen xedapen espezifikoei eta proiektu honetan bertan xedatutako erregimenari ere.

Eraikinetan, daukaten babes mailaren arabera, egin ahal izango diren esku hartzeen ezaugarriak zehazteko, Ondare Hiritartua Eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko, abenduaren 30eko, 317/2002 Dekretuko, I. eranskinak definitzen dituen interbentzio erak erabili dira Katalogoan.

Gune arkeologikoei dagokienez, Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudia ezartzen duen 234/1996 Dekretua ere jarraitu da Katalogoko araudia zehazteko orduan.

Arlo honi buruzko lege aurrikuspen, xedapen eta irizpideak bete egin dira katalogoa definitzeko orduan.

## 3.3. BIZITEGI ASENTAMENDUAK

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera egindako bizitegi–lurzoru eskaintzaren kuantifikazioaren kalkuluak Alkizan 18 eta 85 etxebizitza artean aurreikusi behar direla ematen du, HAPO honen aurerakineko dokumentuan ikus daitekeenez.

Aurrerakin dokumentuan planteatutako etxebizitzako barrutien aukera ezberdinen artean Udalak HAPO honen garapenerako hobetsitakoek 30 etxebizitzako aurreikuspena egiten dute. Horietatik 10 garapen baxuko bi familiako etxeetan antolatzen dira eta beste 20ak eraikin irekitan antolatzen diren etxebizitza tasatuak dira.

Gaur egun Alkizak 178 etxebizitza ditu, hirigunean 85. Planteatzen diren berriekin hirigunean etxebizitza kopuruaren hazkuntza %35 da, eta udalerrian %16,8. Diferentzia horrek landa lurretan dauden etxe kopuruaren garrantzia nabarmentzen du, gehiago bait dira etxe horietan dauden etxebizitzak (93) herrigunean daudenak baino. Etxebizitzako ordenazio berriak herrigunean edo hori zabaltzen egiten direnez, Alkizan lehengo aldiz, biztanleriaren pisua handiago izango da kalean mendian baino. Horrek herrigunearen bizitza sozialerako duen garrantzia indartuko du, eta horrek herriaren izaeran eraldaketa sakona eragingo duen sentsazioa sortu badezake ere, herriaren gaur egungo egiazko izaera hobeto islatzeko baikoko du soilik, dagoeneko biztanleen gehiengo handi baten bizimodua ez baita baserriaren bizitza moldei atxikita.

Hiru dira etxebizitza berri horiek hartuko dituzten hirigintza barrutiak.

Nagusia, 26 etxebizitza hartuko dituena, garapen baxuko bi familiako hiru etxe eta eraikin hirekitan hogei etxebizitza tasatu, herrigunea ekialdetik zabaltzen antolatzen da, lurzoru urbanizagarriko sailkatzea daukan 6. Sektorea da..

Beste biak hiri-lurzoruan egongo dira, egungo hiri bilbeko hutsuneak betetzen. Zuzkidura-Jarduketaren eran antolatu dira, eta bakoitzak garapen baxuko bi etxebizitzako eraikin berri bakarra ordenatzen du.

## 3.4. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA TERTZIARIOETARAKO ASENTAMENDUAK

Planak ez du jarduera ekonomikoetarako hirigintza barruti berririk aurreikusten. Ez industrialik eta ez tertziariorik. Tertziarioa izan badaiteke ere 6. Sektorean aurreikusitako zuzkidura pribatuko lagapena, 2/2006 Euskadiko lurzoruaren eta Hirigintzaren legeko 79 artikulua betetzeko egiten dena.

Aurreko plangintzaren ildotik jarraitzen da arlo honetan, lurraldeko plangintzak eta bereziki Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko planak Alkizarako aurreikusten duenarekin bat eginez.

## 3.5. HIRI LURZORUAREN ANTOLAMENDUA

Orokorrean, aurretik aipatu ditugun bi zuzkidura-jarduketa kenduta, hiri-lurzorua dagoen eran mantentzen da. Gaur egun dauden eraikinei plan honek ez die eraikigarritasun gehiagorik ematen, era berean ez du eraikinik eraistea aurreikusten.

Herrigunea 5 eremutan banatu da, eraikinen tipologia ezberdinen arabera, nahiko identifikagarriak direnak une historiko ezberdinen emaitzak direlako, gune zaharraren eraikin klasiokoertatik hasita eta ondoren horrek eduki dituen ondoz ondoko zabaltzeenetatik jarraituz, multzo arras koherenteetan biltzen baitira.

1. eremuak gune historikoa hartzen du, jatorrizko baserriak, eraikin klasikoak, zuzkidura publiko eta pribatuak eta espazio libre nagusiak barneratuta. Dagoena kontserbatzea izango da eremu honen helburu nagusia, hala ere, bi etxebizitza egikaritzeko zuzkidura-jardueretako bat eremu honetan dago, Elizegi eta Otsamenditxiki etxeen artean kokatuta. Zuzkidura-jarduketa izaera duen barruti txiki horren (1.1 Zuzkidura-Jarduketa) ezaugarriak, 1. Eremuko guztiarenekin batera, HAPO honen G dokumentuan zehazten dira.

2. Eremuak Etxaburuako bi eraikinak hartzen ditu, sarrera bidea eta inguruko espazio libreekin, hiri-lurzoruko hegoaldeko muga eta errepidearen artean. Honetan ere HAPO honek ez du eraikigarritasun berririk ematen.

3. Eremuak herriguneko hego-mendebaldeko muturreko etxe taldea hartzen du, Hernio bailarara doan herribidearen bi aldeetara kokatzen dena. Etxebizitzako 6 eraikin ireki hartzen ditu, lursail pribatu eta inguruko espazio publikoekin batera. Aurrekoan bezala honetan ez da eraikigarritasun berririk aurreikusten.

4. Eremuak, herriguneko ipar-ekialdeko muturrean, errepideearen ondoan lerrokatzen diren garapen baxuko etxeak hartzen ditu, lursail pribatuak eta espaloia, errepidea 1. Eremuan geratzen delarik. Honetan kokatzen da bigarren zuzkidura-jarduketa (4.1 Zuzkidura-Jarduketa) besteak bezala garapen baxuko bi familiako etxea antolatzen duena. Eremuaren gainontzeko lursailetan HAPO honek ez du eraikigarritasun berritik ematen.

5. Eremuak Done Jakue Baselizako bidearen hegoaldera dauden bost etxebizitza bifamiliarren taldea eta bere lursail pribatuak hartzen ditu. Hauetan ere ez da esku hartze berririk aurreikusten HAPO honetan.

Eremu guzti hauen eraikin eta lursailen hirigintzako ezaugarriak HAPO honen G dokumentuan jasota daude. Idatzizko deskripzioan eta planotan.

## 3.6. LURZORU URBANIZAGARRIAREN ANTOLAMENDUA

Aipatu denez, hirigintzako barruti bakarra dago lurzoru urbanizagarrian: eraikin irekiko egoitza sailkapena duen 6. Sektorea.

20 etxebizitza tasatu eraikin irekietan eta salmenta libreko 6 etxebizitza garapen baxuko bi familiako etxetan.

Garapen baxuko etxeek sektorearen biderragarritasuna errazteko balioko lukete, sektore honen helburua herriko gazteentzat etxebizitza eskuragarriak eskaintzea bait da, herrian gera daitezen, herriaren identitatea sendotzeko.

Udalari sektoreko egikaritze prozesua errazteko, bere antolamendu xehatua HAPO honetan bertan definitzea erabaki da, garapen plangintzarik egin behar ez izateko, eta etxebizitzak merkatuan jartzeko epeak murriztu ahal izateko, gaur egun etxebizitza salmenta guztiz geldituta baitago Alkizan, Aurrerakin Dokumentuan adierazi zen eran.

Hiri-antolamenduaren ikuspuntutik, ordenazioak herri bilbearen ekialdeko itxitura planteatzen du. Hala ere, ordenazioaren bide antolaketa Aurrerakin dokumentuan ordenazio aukera ezberdinek osatzen zuten herrigunearen idea orokorraren partea dela baieztatu daiteke. Ideia hori gauzatzen joateko aukerak irekita uzten ditu. Errepidearen paraleloan beste bide berri baten hastapena marrazten du, ekialdera edo mendebaldeara luzatzeko oztoporik ez duena, eta errepidearekin Done Jakue Baselizako herri bidearen bitartez lotzeko egiten duen eraztun erdiarekin lehen aipatutako itxitura gauzatzen du.

Herrigunearen errematea denez, horren atea nolabait, logikoa da, eta historikoki askotan frogatua, espazio publiko bat egitea trantsizio puntu horretan, egun herriguneak dituen nagusien osagarri, eta etxe berritan biziko direnen laketgarri, espazioa etxebizitza tasatuen lau eraikinek eratua izango baita plaza.

Garapen baxuko etxeak bide berriaren ondoan kokatuko dira, egun 5. Eremuan daudenen paraleloan, maila baxuago batean, horiei bistak ez kentzeko. Multzo homogeneoa eratuko dute.

HAPO honen G dokumentuko planoetan maila baxuago horretara jaitsiko den bide berri horren antolaketa ikus dezakegu, nola, ordenazioaren bi aldeetan, itxiturak eta irekitze aukerak konbinatzera jolasten duen, mendebaldeko biribilgunean zein ekialdeko arkuan, non Aurrerakineko aztereketen artean, bide hori Done Jakue Baselizaren bidearen azpitik tunelean errepidearekin lotzea planteatu zen.

## 3.7. <u>LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUA</u>

Lurraldearen zonifikazioak diagnostiko-unitateen agregazioen bidez sortzen diren lurralde-zatiak ematen ditu, zeinek, ezaugarri bereiziak eduki arren, kudeaketa-helburu berberak dituzte.

Horrela, lurralde-zati horiek, Zonak dituko ditugunak, HAPOren zehaztapenetatik erator daitezkeen erabilera edo jarduera jakin batzuk jasateko edo ez jasateko modu homogeneoan jokatzen duten lurraldeko barrutiak dira. Argi dago horrela lortzen dela lurralde-diagnostikoa pragmatikoa izatea, eta Ingurumen Unitateak benetako unitate operatibo bihurtzea hirigintza-plangintza idazteko.

Antolamendu Kategorien araberako zonakatzeak etorkizunean jarduketa espezifikoak egiteko aukera ematen du, ezaugarri bereziak izan arren kudeaketa-helburu berberak dituzten lurraldeko lurzati guztietarako.

Ildo horretan, HAPO honetan, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak jarraitu dira, Alkizan aplikagarriak direnak hartuta:

Horregatik, Alkizako lurraldea, antolamenduari eta kudeaketari dagokienez, honako zona orokor hauetan banatzen da:

D1.- BABES BEREZIA
D2.- AZALEKO UREN BABESA
D3.- INGURUMENAREN HOBEKUNTZA
D4.- BASOA
D5.- BASOA. MENDI URRIA
D6.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA. LANDAZABALA ( TRANTSIZIOKO LANDA- PAISAIA)
D7.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA. BALIO ESTRATEGIKO HANDIA

Horren gain, Baldintzatzaile gainjarri hauek ditugu:

Azpiegitura berdea:

• Korridore ekologikoen sarea

• Beren ingurumen-balioengatik babestutako espazioak
• Interes geologikoko zonak

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak:

• Eremu higagarriak, % 30etik gorako maldak eta irristatzeko arriskua duten zonak
• Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten zonak
• Ibilguak eta ur-bilketak babesteko zonak
• Sute-arriskua duten zonak

Arkeologia- eta arkitektura-ondareari eta paisaiari buruzkoak:

• Arkeologia- eta ondare-intereseko eremuak
• Paisaia-intereseko eremuak

Poluzioari buruzkoak:

• Zona akustikoak
• Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
• Energia berriztagarriak ezartzeko sentsibilitatea

Zona guzti horien antolatzea, eduki ditzaketen erabilerak eta har ditzaketen eraikin eta obra publikoak definitzen dituena, HAPO honen F Dokumentuan zehazten da, gorago esan dugu eran, ingurumen fisikoaren erabilerari eta bere babesari eragiten dion Lurralde-Antolamendu Partzial eta Sektoriala estuki jarraituz.

Alkizako lurzoruaren parte handi bat hartzen duen HERNIO-GAZUME KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAk, Natura 2000 Sareko Naturagune Babestuak, garrantzi handia dauka zonifikazuioaren ikuspuntutik. Babes Bereziko (D1) zona da HAPO honen arabera, baina bere baitan 219/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituenak ezartzen dituen lurzoru kategoriak kontutan edukitzen dira eremuaren erabiltze eta babes baldintzak definitzeko, KBE kanpoko zonek duten zehaztapen maila berbera edukiko dutelarik.

ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

# 4. PLANAREN EGITURAZKO ANTOLAMENDUA

## 4.1. JARDUKETA INTEGRATUAK

Jarduketa integratu bakarra aurreikusten du HAPO honek. Lurzoru hiritargarri osoa hartzen duen 6. Sektorea egikaritzeko definitzen dena.

HAPO honetan definitzen diren garapenerako hiru hirigintza barrutietatik, 6. Sektorea da jarduketa integratua izateko beharrezko garrantzia duen bakarra, eta honela definitzen da 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 138 artikuluak xedatutakoaren ildotik.

Lege bereko 140 artikuluko 2. Puntuak dioenez jarduketa integratuak jarduketa publikokoak dira, eta administrazioak, kasu honetan Udalak, horien garapenaren ardura.

2/2006 legeko 141 artikuluak dioenez jarduketa integratuen egikaritze araubidea urbanizatzeko jarduketa-programan onartzean behin-betiko definitu behar da. Kasu honetan, 6. Sektoreari dagokionez, Udalak duen asmoa egikaritzea araubide publikoaren bidez egitea da.

Honen zioa, etxebizitzen garapenean 6. Sektoreari edukiko duen betekizunean dago. Herriko biztanleen hazkuntza begetatiboari erantzuteko, eta gazteek alde egin ez dezaten, prezio egokiko etxebizitzak eskaintzea baita barrutiaren helburua, eta beraz, Udalak berak garapena kontrolatzea asmo hori bideratzeko aukera onena izan daiteke, irabazi asmorik gabeko kudeaketa egin dezakeelako.

## 4.2. GUNE HISTORIKOA

Guene historikoak, bere berezitasunak direla eta, hirigintzako eremu bakarrean biltzen da. 1. Eremua da, Hiri lurzorua dena eta Alde Zaharreko Egoitzako kalifikazio globala duena.

3.5 atalean esan denez eremu honen asmo nagusia, 1.1 zuzkidura-jarduketa kenduta, dagoenaren kontserbazioa da, babes maila ezberdinetako eraikinak, eremuan kokatuta dauden zuzkidura publiko eta pribatu nagusiak, espazio libreak eta baita ere elementu guzti horiek osatzen duten multzoa, Alkizaren irudi erreferentziala eratzen duena.

Gune historikoan dauden eraikinetatik, 20 hilerrikoa kontutan edukiz, 12 babestuta daude, %60. Guzti horien babes mailak eta babes-ezaugarriak HAPO honen E Dokumentuan, Katalogoan, ikus dairtezke.

Espazio libreei dagokienez, berebiziko garrantzia du Erretoretxe eta San Martin eliza artekoa, Aranako bailarara irekitzen dena, herriko sozializazio espazio nagusia dena, gune historikoan bakarra. Alkizako bizitza sozial guztia horren inguruan egiten dela esan dezakegu.

Horren gain interesgarriak dira harrizko hormen arteko herri bideak, errepidearekin batera guneko komunikazio sistema osatzen dutenak.

Arlo honi dagokionez, herrigunea osorik komunikatzen duen ibilbide bakarra errepidea da. Honetan Otsamendi eta Donmigelena artean ezinezkoa da ibilgailuen eta oinezkoen ibilbideak bereizi, etxeen arteko tartea oso estua delako. Dagoeneko elkarbizitzako gunea definituta dago zati horretan, zeinean oinezkoek lehentasuna daukate. Zorionez errepidea es da pasoko bidea. Herriko barneko trafikoa hartzen du soilik, gehien bat herrigune bera helmuga duena. HAPO honek duen helmenarekin ezinezkoa da ibilgailuen trafikoa herriguneko puntu garrantzitsu horretatik desbideratuko lukeen alternatiba gauzatzea. Hori lortzeko erak aztertu badira ere epe luzean gauzatu beharrekoak lirateke. HAPO honen ordenazioak alternatiba horietako bati hasiera ematen dio, eta besteei ez die ateak ixten.

## 4.3. ERAIKIGARRITASUN ESTANDARRAK

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 77 artikuluak Hirigintza-eraikigarritasun mugei buruz xedatutakoak jarduketa integratuei dagokie. HAPO honen kasuan daukagun jarduketa integratu bakarra 6. Sektorena da.

Artikulu horren 3. Puntuan lurzoru urbanizagarrien sektoreentzako gehienezko sestra gaineko eraikigarritasun fisikoaa finkatzen da. Eraikigarritasun hori, barrutiko zuzkidura publikoen eraikigarritasuna kontutan hartu gabe, 1,3 $m^2$(t)/$m^2$ izango da, zatitzailean sistema orokorren azalera kenduta.

Artikulu horren 4. Puntuan berriz gutxieneko eraikigarritasuna finkatzen da. Alkizako kasua den, etxebizitza babestuetarako lurzorua gorde beharrik ez duten udalerrietan, hori 0,25 $m^2$(t)/$m^2$ izango da.

G dokumentuan ikus daitekeenez 6. Sektoreko sestra gaineko eraikigarritasuna 3204 $m^2$(t) da. Barrutiaren azalera 9.251 $m^2$ da. Sektoreko sistema orokorrak 970 $m^2$ dira.

Gehienezko eraikigarritasuna gainditzen ez dela frogatzeko formula:

3204 $m^2$(t) / ( 9.251 - 970) $m^2$ = 0,38 $m^2$(t)/$m^2$ < 1,3 $m^2$(t)/$m^2$

Gutxieneko eraikigarritasuna betetzen ez dela frogatzeko formula:

3204 $m^2$(t) / 9.251 $m^2$ = 0,35 $m^2$(t)/$m^2$ > 0,25 $m^2$(t)/$m^2$

Beraz, 6. Sektoreko ordenazioak 2/2006 legeko 77 artikuluak xedatutakoa betetzen du.

## 4.4. SISTEMA OROKORREN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK

3.1 atalean jaso den eran, HAPO honek aurreikusitako garapenerako beharrezkoa da Espazio libreen sistema orokorrak handitzea Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legaren 78 artikuluak xedatzen duena betetzeko.

Hori egin ahal izateko, gestio publikoa izango duen 6. Sektorean espazio libreen sistema orokor bat aurreikusi da.

Sektoreak udalerriko garapen nagusia hartzen du, HAPO honen 30 etxebizitza berrietatik 26 ordenatzen dira sektorean. Beste lauak hiri-lurzoruko bi zuzkidura-jarduketa txikitan ordenatu dira.

Barruti hauek tamaina txikikoak dira eta ez dute azalera nahikorik egin beharreko lagapenak barruan egiteko, eta beraz, lagapen horien balioa monetarizatu egingo da.

Barruti bi horiei dagozkien espazio libreen sistema orokorrerako dirua Udalak baliatuko du 6. Sektoreko Espazio Libreen Sistema Orokorra osatzeko, honen tamaia garapeneko hiru barrutien eskaera estaltzeko diseinatu delako.

1.1 Zuzkidura-Jarduketak 50,56 $m^2$-ko espazio libreen sistema orokorra eskatzen du.
4.1 Zuzkidura-Jarduketak 53,23 $m^2$-ko espazio libreen sistema orokorra eskatzen du.
6. Sektoreak 640,8 $m^2$-ko espazio libreen sistema orokorra eskatzen du.

Guztira 744,59 $m^2$ dira. 6. Sektorean egiturazko antolamenduak aurreikusten duen espazio libreen sistema orokorrak 970 m² ditu.

## 4.5. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 82 artikuluak xedatzen duenaren arabera, Alkizak, 3.000 biztanle ez dituenez, eta 2.000 biztanle baino gehigoko hiri-lurzoru jarraia ez duenez, ez du babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko erreserbarik egin behar.

Hala ere, 6. Sektoreko 26 etxebizitzetatik 20 araubide orokorreko etxebizitza tasatuak izango dira.

Etxebizitzarako hirigintzako eraikigarritasunetik 2340 $m^2$(t) izango dira tasatuak eta 864 $m^2$(t) libreak. Eraikigarritasun horren %73 izango da araubide babestukoa.

## 4.6. IRAKASKUNTZA-EKIPAMENDUAK

Alkizako eskola publikoa da irakazkuntzako ekipamendu bakarra. 1. Eremuan dago eliza eta udaletxearen aurrez-aurre.

2020an bukatu zen eraikina eraberritzeko obra. Eskola zaharra zegoen orube berean eraiki zen eskola berria, urte batzuetarako alkizako beharrrak asetuko dituena.

Eskolak 2 urtetatik 12 urte bitarteko haurrak hartzen ditu, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza.

HAPO honen epemugan ez da hezkuntza arloko beste ekimenik hartzeko beharrik ikusten, eskola berritzearen azken aldiko helburu nagusia bete den ezkero.

## 4.7. ZUZKIDURA-ETXEBIZITZAK

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 81 artikuluak xedatzen duenaren arabera, Alkiza, 20.000 biztanle baino gehiago ez dituenez ez dago zuzkidurazko bizitokitarako erreserba egitera behartuta.

**ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

# 5. PLANAREN ANTOLAMENDU XEHATUA

## 5.1. HIRI-LURZORU FINKATUA

Hiri zoru osoa finkatuta geratzen da 1.1 eta 4.1 zuzkidura-jarduketak izan ezik.

Bost dira hiri-lurzorua osatzen duten eremuak, aurretik aipatu dugunez. Aurreko atalean aztertu dugun gune historikoa hartzen duen 1. Eremua eta beste lau, horren inguruan gauzatutako hazkuntza modernoagoak hartzen dituztenak.

Guztietan dagoena finkatzen da, eta ez da garapen berrietarako aukerarik ematen aipatutako bi jarduketa horiek kenduta.

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen 80/2022 Dekretuari egokitzeko edo antzeko helburuekin planteatutako jarduketak egin ahal izango dira, beti ere, kontsolidatzen diren hiri-espazio eta eraikinentzako kaltegarriak ez badira eta eraikin babestuen babes-ezaugarriak mantentzen badira.

Aipatutakoen gain ez da hiri-lurzorua dentsifikatzeko planteamendurik egiten, alde batetik espazioen konfigurazioek eta tipologiek aukera gutxi ematen dutelako eta beste aldertik zabaltzeen eraikinak nahiko berriak direlako eta erabilera egokian mantentzen direlako. Gauza bera esan daiteke eraikin historikoei buruz, babesen gorabehera, orokorrean berritze maila altua dutelarik.

## 5.2. HIRI-LURZORU FINKATUGABEA

Hiri-lurzoruko bi eremutan planteatzen dira eraikigarritasuna handitzeagatik finkatugabeko barrutiak, egikaritzarako zuzkidura-jarduketa eran antolatzen direnak. 1.1 Zuzkidra-jarduketa da lehenengoa 1. Eremuan eta bigarrena 4.1 zuzkidura-jarduketa da, 4. Eremuan.

Biak asmoetan berdinak dira, hiri-lurzoruko hutsune bi betetzea dute helburu, eta horretarako bi familiako eraikin bana ordenatzen dituzte. Antzekoak dira ere azalera eta profila HAPO honen G dokumentuan egiaztatu daitekeenez.

Eremu ezberdinetan daude naiz etxebizitza solteen lerro berean egon, herrigunearen ekialdean eta errepidearen iparraldera. Tipologien araberako egin dugun herrigunearen zatiketan du zioa horrek, lehenengoa etxe historiko artean kokatzen baita, eta bigarrena berriz etxe modernoagoen artean. Bi kasutan hala ere, eraikinen segidan dauden bi erritmo haustura osatuta geratuko dira.

Zuzkidura-jarduketa eran antolatu dira, definitu diren bi hirigintza-barrutiek ez dutelako tamaina nahikorik Hirigintzako Estandarrei Buruzko 123/2012 DEKRETUA, bere 5. Eta 6. Artikuluan eskatzen dituen lagapen guztiak gauzatu ahal izateko. Dekretuaren 7. eta 5. Artikuluak jarraituz, Udalari eman beharreko diruarekin konpentsatuko da gauzatu ezin diren lagapenen balorea. Horren kalkulua HAPO honen D dokumentuan egiten da, dekretuak diona jarraituz. Honela gauzatu ezin diren lagapenen $m^2$-ko balorea hirigintza-barrutiko lurzoru urbanizatuaren $m^2$-ko balorea da.

## 5.3. LURZORU URBANIZAGARRIA

6. Sektorean araubide orokorreko 20 etxebizitza tasatuak egin nahi dira, herriko biztanleria errotzeko asmoarekin, eta helburu horretan laguntzeko, bideragarritasun ekonomikoa errazteko, salmenta libreko 6 etxebizitza planteatzen dira hiru bi familiako etxeetan.

Etxebizitza tasatuak lau eraikinetan antolatzen dira, eraikin irekiko egoitzako kalifikazio xehatuko lursail banatan. Etxebizitza libreak hiru garapen baxuko egoitzako kalifikazioko lursailetan kokatzen dira.

Eraikin guztiek daukate ondoan sestra gainean eraiki ezineko lursail pribatua, behe solairuko etxebizitzen erabilpenerako izango direnak. Sestra azpian aparkaleku komunak izango dituzte.

Eraikin irekiek etxebizitzak edukiko dituzte sestra gaineko solairu guztietan, eta esan den eran, aparkalekuak sestra azpiko solairuetan, bat izan ezik, zeinaren erdisotoan ekipamendu pribatua aurreikusten da, eta beraz, aparkalekurik ezin da bertan antolatu, trastetegiak kokatzeko lekua geratzen bada ere.

Tokiko sistemen espazio libreak etxe tasatuen artean eratzen den plazan eta bere inguruan ordenatu dira. Aparkaleku pribatutarako legeak duen eskaera dela eta, beharrezkoa da plazaren azpian aparkalekuko sotoa egitea. Sotoa pribatua izango da baina horren gaineko lurrazalak lurzati publikoa osatuko du plazaren gainontzeko zatiarekin. Era honetan, 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeak bere 79 artikuluan eskatutako tokiko sistemen espazio libreen azalera lagapenak gauzatzea errazten da.

# ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

## 6. AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

### 6.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA

Planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren balorazioa Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak arautzen du gaur egun.

Planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko VI. kapituluko artikuluek garatzen dituzte Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean iragarritako neurriak.

50. artikuluan (Ebaluatu beharreko planak eta proiektuak) zehazten da udalerri guztiek egin behar dutela hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa artikulu honetan zerrendatzen diren plan eta proiektuetan:

a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorekatze-plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

b) Proiektuak:

- Merkataritza-azalera handiak eraikitzeko proiektuak.
- Industrialdeak eta teknologia-parkeak eraikitzeko proiektuak.

Aurrekoez gain, euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan guztiak ebaluatu beharko dira, arnasguneetan.

Aurreko artikulua aplikatzearen ondorioz, Alkizako Hiri Antolamenduko Plan Orokor honi hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaio.

Hirigintza-planen kasuan egin beharreko izapidetzeari dagokionez, 52. artikuluak honako hau dio:

"1. – Onartu beharreko plan edo proiektu baten hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa udalek egingo dute, plan edo proiektu horien izapidetze substantiboak dirauen bitartean.
...
3. – Udaleko zerbitzu teknikoek planaren edo proiektuaren tramitazio substantiboan sortutako dokumentazioa baliatuko dute hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egiteko. Sustatzaile pribatu batek sustatutako proiektuen kasuan, hark lagundu egin beharko du, eta beharrezko datu guztiak eman beharko ditu udaleko zerbitzu teknikoek hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin ahal izan dezaten".

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, udalerriei dagokie hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egitea, aurkeztutako planaren funtsezko izapidetzean. Udal-teknikariek aztertu behar dute aurkeztutako dokumentazioa.

Gainera, 53. artikuluak (Hizkuntza-azterketaren irismena zehaztea) honako hau gehitzen du:

"1. – Plan edo proiektu batek dagokion eremuan edo eremuan euskararen erabileran eraginik izango duen aztertzerakoan, honako adierazle hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Udalerriko biztanleriaren aldaketak.

b) Udalerriko bisitari-kopurua aldatzea.
c) Bestelako eraginak udalerriko egoera soziolinguistikoan.

2. – Udaleko zerbitzu teknikoek, aipatutako alderdiak aztertu ondoren, hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plana edo proiektua modu substantiboan onartzeko eskumena duen udal-organoari:

a) Planaren edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu hizkuntza-inpaktu garrantzitsurik ez dagoela, hizkuntza-inpaktuaren azterketa ez egitea proposatuko du.

b) Aitzitik, eragin nabarmena izan dezakeela uste badu, hurrengo artikuluetan aurreikusitako hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrarekin amaituko du”.

Bestalde, 54. artikuluak, hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteari buruzkoak, hau dio:

"Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana udaleko zerbitzu teknikoek egingo dute, eta, gutxienez, honako alderdi hauek aztertuko ditu:

a) Planaren edo proiektuaren deskribapen orokorra eta haren garapenari buruzko aurreikuspenak.

b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea kalkulatzea. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, honako aldagai hauek hartuko dira kontuan:

– Bizitza sozial eta kulturalean duen eragina.
– Herritarrek edo bisitariek hizkuntza ezagutzea.
– Herritarrek edo bisitariek hizkuntza erabiltzea.
– Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
– Hizkuntza-paisaia eragin-eremuan.
– Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

c) Funtsezko alderdien azterketa. Azterketa horren barruan, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

– Planaren edo proiektuaren izaerarekin lotutakoak.
– Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioarekin lotutakoak.
– Kokapenarekin lotutakoak.
– Aurreikusitako hizkuntza-erabilerarako irizpideekin lotutakoak.

d) Konpentsazio-neurriak.

e) Neurri zuzentzaileak”.

Hemen transkribatutakoaren arabera, Udalari dagokio hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko behar diren dokumentuak egitea, inpaktuen irismen-dokumentua egitea, eta, behar izanez gero, Alkizako Hiri Antolamenduko Plan Orokor honen hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Hala izanik ere, Irismen Dokumentua egin ondoren Azterlana egitea beharrezkoa dela ikusi da eta Alkizako Udalak Hizkuntza Inpaktuaren Azterlana HAPO honen dokumentazioa jasotzea erabaki du. Hurrengo atalean egiten da.

## 6.2. HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA

### 6.2.1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

#### 6.2.1.1. PLANAREN SUSTATZAILEA

Alkizako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) sustatzailea Alkizako Euskara Batzordea da.

#### 6.2.1.2. PLANAREN HELBURUAK

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren betekizuna Alkizako hurrengo 8 urtetarako hirigintza eta landa lurren ordenazioa definitzea da.

Hizkuntza Inpaktuaren Azterlanari dagokionez, HAPO-k dituen helburu nagusiak hauek dira:

Plangintzak erantzun beharreko lurzoruaren antolatzearen eskakizun berriak zorrotz aztertu, bideratu beharreko garapenen gehiegizko dimentsionamendua saihestu.

Etxebizitzaren eskaintza egokitzeko herrigunea zabaltzea, lurzoru urbanizatuaren ondoan eta egungo hiri-bilbean oinarrituta, mota guztietako garraio mugimenduak murrizteko eta bide eta zerbitzu berrien beharra minimizatzeko.

Gaur egun Alkizak 178 etxebizitza ditu, hirigunean 85. Planteatzen diren berriekin hirigunean etxebizitza kopuruaren hazkuntza %35 da, eta udalerrian %16,8. Diferentzia horrek landa lurretan dauden etxe kopuruaren garrantzia nabarmentzen du, gehiago bait dira etxe horietan dauden etxebizitzak (93) herrigunean daudenak baino. Etxebizitzako ordenazio berriak herrigunean edo hori zabaltzen egiten direnez, Alkizan lehengo aldiz, biztanleriaren pisua handiago izango da kalean mendian baino. Horrek herrigunearen bizitza sozialerako duen garrantzia indartuko du, eta horrek herriaren izaeran eraldaketa sakona eragingo duen sentsazioa sortu badezake ere, herriaren gaur egungo egiazko izaera hobeto islatzeko baikoko du soilik, dagoeneko biztanleen gehiengo handi baten  bizimodua ez baita baserriaren bizitza moldei atxikita.

Hiru dira etxebizitza berri horiek hartuko dituzten hirigintza barrutiak.

Nagusia, 26 etxebizitza hartuko dituena, garapen baxuko bi familiako hiru etxe eta eraikin hirekitan hogei etxebizitza tasatu, herrigunea ekialdetik zabaltzen antolatzen da, lurzoru urbanizagarriko sailkatzea daukan 6. Sektorea da..

Beste biak hiri-lurzoruan egongo dira, egungo hiri bilbeko hutsuneak betetzen. Bakoitzak garapen baxuko bi etxebizitzako eraikin berri bakarra ordenatzen du.

Biztanleria egoiliar gaztea finkatzea da heklburua, eta, horretarako, lurzoruaren eskaintza nahikoa eta kontrolatua eskainiko da 6. Sektorean, prezioari eta tipologiari dagokienez baldintza egokietan, aurretik daudenekin eta lurraldearen egokitasunarekin bat etorriz.

Ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru berririk sailkatzen. Udalerrian dauden jarduera ekonomiko industrialen, komertzialen edo tertziarioen erabilerak finkatuko dira.

### 6.2.2. EBALUAZIO PROZESUA

6.2.2.1. IRISMEN DOKUMENTUA

2024ko martxoaren 5ean eman zitzaion hasiera hizkuntza inpaktuaren prozedurari, irismen dokumentuarekin. Horretarako, proiektuaren oinarrizko informazioa jaso zen, eta udalerriko datuak aztertu ziren. Euskararen proiekzio indizea eta bilakaera indizea kalkulatu ziren, hauskortasun indizea aintzat hartuta.

6.2.2.2. HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA

Irismen dokumentuak HAPO-k Alkizan eragin negatiboa  izango duela aurreikusi zuen, eta, beraz, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin da. Hori jaso da txosten honetan. Hiru urratsetan egin da: lehenik, hizkuntza eraginaren intentsitatea kalkulatu; bigarrenik, funtsezko alderdiak aztertu eta hobetzeko neurriak identifikatu; eta, azkenik, neurri zuzentzaileak proposatu.

### 6.2.3. ERAGINAREN IRISMENA

6.2.3.1. GALDETEGI LABURRA

Planaren eraginari begiratuta, oinarrizko hiru galdera erantzun behar dira: biztanleen kopurua areagotuko ote den, bisitari gehiago erakarriko ote diren edo egoera soziolinguistikoan bestelako eraginik izango ote den.

| Galdera | Bai / Ez | Azalpena |
|---|---|---|
| 1.- Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanle kopuruan? | Bai | 30 etxebizitza berri aurreikusten dira. |
| 2.- Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? | Ez | Bisitari berriak erakartzeko ekimenik ez dauka planak bere baitan. |
| 2.1.- Bisitariak turismoari lotutakoak izango al dira? | Ez | |
| 2.2.- Bisitariak azpiegitura edota zerbitzu bati lotutakoak izango dira? (hezkuntza, industria, kirola, merkataritza, osasuna, kultura…) | Ez | |
| 3.- Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du? | Ez | Etxebizitzen gain ez da beste hazkuntzarik aurreikusten udalerrian. |

6.2.3.2. BILAKAERA INDIZEA

| **Aldagaia** | **Balioa** |
|---|---|
| Biztanleak guztira | 344 |
| Euskaldunak-guztira % | 89,53 |
| Lehen hizkuntza euskara - guztira % | 82,47 |
| Etxean erabiltzen den hizkuntza guztira % | 79,60 |
| Euskara zerbitzua | Bai |
| Gizartean euskara sustatzeko plana | Bai |
| Faktorea bisitari kopurua | 6,00 |
| Faktorea euskaldunak | 5,00 |
| Faktorea lehen hizkuntza | 6,00 |
| Faktorea etxeko hizkuntza | 5,00 |
| Faktorea euskararen inguruko egituraketa | 0,00 |
| Hauskortasun indizea | 13,00 |
| Hiren eraginaren balioa | 0,00 |
| Euskararen proiekzio indizea | -7,73 |
| Bilakaera indizea | -7,73 |
| Txostena egin beharra | Azterlana bai |

### 6.2.4. HIZKUNTZA INPAKTUAREN INTENTSITATEA

Behin ondorioztatuta planak eragin negatiboa izango lukeela, hurrengo urratsa da inpaktu horren intentsitatea kalkulatzea. Horretarako, eragin linguistikoaren ebaluaziorako galdetegia baliatu da; helburua da eragina

identifikatzea eta ebaluatzea, eta planak hizkuntza aldetik izan ditzakeen gabeziak sumatzea. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, honako aldagai hauek izan dira kontuan:

**Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza.** Plana egingo den tokiko komunitatearen ohituretan izan daitezkeen aldaketak: aisialdia, espresio kulturalak, harreman moduak…

**Tokiko euskararen ezagutza.** Planaren eraginez udalerriko ezagutza tasa aldatuko den.

**Tokiko euskararen erabilera.** Planaren eraginez udalerriko erabilera tasa aldatuko den.

**Hizkuntza paisaia.** Zer ikusi edo entzun daitekeen, idatzizko eta ahozko elementuak.

**Egitasmoaren komunikazioa.** Kanpora begirako komunikazioetan nola jokatuko den.

**Euskarazko zerbitzuen eskaintza.** Eremu berrian euskarazko eskaintza aldatuko den.

Ondorioztatu da planak honelako eragina edukiko duela.

| Aldagaia | Balorazioa |
|---|---|
| Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza | 4,00 - Baxua |
| Tokiko euskararen ezagutza | 8,00 - Ertaina |
| Tokiko euskararen erabilera | 12,00 - Ertaina |
| Hizkuntza paisaia | 2,00 - Baxua |
| Egitasmoaren komunikazioa | 0,00 - Eragin |
| Euskarazko zerbitzuen eskaintza | 0,00 - Eragin |
| GUZTIRA | 26 - Garrantzi gutxikoa |

AZALPEN OROKORRA

**Egitasmoaren komunikazioa:** Planak ez du komunikazioen gaineko eraginik.

HAPO-k duen funtzioa udalerriaren lurzorua ordenatzea da, hau da, udalerriaren lurzorua ezaugarri homogeneoko zonetan banatzen du eta bakoitzari dagokion eraikitze eta erabilera baldintzak definitzen dizkio. Bere xedapenak horri bideratuta daude, ez du beste gehiagorako ahalmen legalik, eta beraz, komunikazioa, pertsonen arteko eralazioaren zentzuan ulertuta, ez dago bere indar arautzailearen ahalmenen artean.

Hori, bai, plana Euskaraz idatzita egon daiteke ala ez, bere tramitazioa euskaraz egin daiteke ala ez, beharrezkoak diren prozesu partehartzaileetan euskara erabili daitezke ala ez, baina hori ez da HAPO-ko dokumentuetan xedatzen, ezin du planak kontrolatu. Beraz, planak dituen eragin linguistikoetatik kanpo geratzen da.

Dena dela, espirituak lasaitzeko, Alkizako HAPO dokumentua garatzeko prozedura guztia euskaraz egin dela ziurtatu daiteke.

**Euskarazko zerbitzuen eskaintza:** ***Planak ez du euskara zerbitzuak baldintzatzen.***

Udalak emanten dituen euskarako zerbitzuak ez du zerikusirik HAPO-rekin, zerbitzu sozialek edo kultura zerbitzuek ez duten era berean; ez HAPO-rekin, ez hirigintzarekin, hau ere, beste zerbitzu horien paraleloan, Udalak ematen duen beste zerbitzuA delarik.

Ze zerbitzuak eman Udalaren politika administratiboak erabakitzen du, HAPO-k ez du politikarik egiten.

### 6.2.5. FUNTSEZKO ALDERDIEN AZTERKETA

Bigarren urrats modura, aztertu da planak jaso beharreko funtsezko alderdiak zertan diren. Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak erabili dira analisi hori egiteko. Funtsezko alderdien galdetegia beteta, plana hobetzeko neurri batzuk identifikatu dira. Izan ere, funtsezko alderdi horiek lagunduko dute planaren eragina saihesten edo murrizten. Aldagai batzuk zuzenean daude lotuta euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin, eta beste batzuk zeharkakoak dira, komunitateari eta elkarbizitzari lotuagoak. Izan ere, herriko komunitate bizitza osasuntsu egotea lagungarri da erabilera hazteko. Alderantziz ere bai: erabilera hazteak areagotu egin dezake komunitatearen osasuna.

**Planaren izaera.** Planaren ezaugarriak egokiak ote diren euskararen garapen positiborako: etxebizitzen tipologia, espazio publikoaren erabilera, garapen eredua.

**Planaren dimentsioa, espazioan eta denboran.** Euskarari nola eragingo dion planak ekarriko duen hazkundeak, garatzeko beharko den denborak eta okupatuko den espazioak.

**Kokapena.** Planak helburu duen leku fisikoa egokia ote den euskararen garapenerako.

**Hizkuntza irizpideak.** Plana garatzeko prozesuan hizkuntza irizpiderik ezarri ote den.

Aldagai horiek gogoan hartuta, eta planaren helburuak ikusita, honako eremu hauetako alderdien azterketa egin da.

#### 6.2.5.1. ETXEBIZITZAK

Etxebizitzak eraikitzea da planaren helburu nagusia. Jarraibideak baliatuz egin da analisia.

IZAERA

| * | Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira? |
|---|---|
| | **Bai** - Hori da Udalaren asmoa eta horregatik etxebizitzen hazkuntza nagusia (30etxebizitzetatik 26) zuzenean kudeatuko du.<br><br>HAPOan 30 etxebizitza berri egitea proposatzen da: 2 etxebizitza 1. eremuan, 2 etxebizitza 4. eremuan eta 6. Sektorean 26 etxebizitza. 6. Sektorea egikaritze araubide publikoaren bidez egitea aurreikusten da, lankidetza sisteman; izan ere, horrela, irabazi asmorik gabeko kudeaketa egitea ahalbidetzen du Alkizako Udalak.<br><br>Horrez gain, Alkizak ez du zertan Babes Publikoari atxikitako etxebizitzak egiteko erreserbarik egin behar (2/2006 legearen 82. artikuluaren arabera); 3.000 biztanle baino gutxiago dituelako eta 2.000 biztanle baino gehiagoko hiri-lurzoru jarraia ez duelako. Dena den, herriko biztanle gazteak Alkizan bizi ahal izateko etxebizitza eskuragarriak izan ditzaten, aurreikusi den hirigintza eraikigarritasunaren %73a araubide babestukoa izango da (tasatua). Helburu horretan lagundu eta bideragarritasun ekonomikoa errazteko salmenta libreko 6 etxebizitza proposatu dira. |

| | |
|---|---|
| * | Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen du? |
| | **Bai** - Hala dago HAPO-ren ordenazioan.<br><br>1. eta 4. eremuetako 4 etxebizitzak herrigunean bertan kokatzen dira, eta 6. Sektorean aurreikusitakoak herriaren ekialdean, hiri-bilbeari amaiera emanez. Herriaren tamaina txikia dela kontuan izanda, bertan kokatzen diren zerbitzu eta ekipamenduak hurbil kokatzen dira.<br><br>Horrez gain, HAPOaren helburuetan dago hirigunean oinezkoek lehentasuna izateko neurriak eta etorkizunerako alternatibak planteatzea; mugikortasun sostengarriaren ideiekin bat eginda, B dokumentuaren 7.2. puntuan. Irabazizko erabileren arloan genero-ikuspegia txertatzeko helburuak ere (B dokumentuko 7.3, 7.4, eta 7.5) helburu honekin bat egiten dute. |

| | |
|---|---|
| * | Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu? |
| | **Bai** - Hala dago HAPO-ren ordenazioan.<br><br>HAPOak aurreikusi duen elkarbizitzarako espazio ireki berri bakarra 6. Sektorean kokatzen da, Espazio Libreen Sistema Orokorra. Bloke irekiko 4 eraikinen artean plaza publikoa sortuko da, auzokide berrien zein herritarren elkargune izango dena; plazari jarraipena eman eta garapen baxuko bi familiako 3 etxeetara iristeko bidean tokiko sistemen espazio libreak ordenatu dira, plazaren osagarri; 6. Sektorearen eta hegoaldeko mugaren artean espazio libre honek ingurumenarekin muga egingo du. Beheko kaleko mendebaldeko buruak, biribilguan ordenatzen denak, bat egiten du herribidearekin.<br><br>Planteatzen diren gainerako 2 eskuhartzeak zuzkidura-jardunketak (1.1. zuzkidura-jardunketa eta 4.1. zuzkidura jardunketa) dira, eta barruti horiek tamaina txikikoak direnez ez dute azalera nahikorik legearen arabera egin beharko lagapenak eremuen barruan egiteko. Horregatik, lagapen horien balioa monetizatu egingo da eta diru hori Udalak baliatuko du 6. Sektoreko Espazio Libreen Sistema Orokorra osatzeko. |
| * | Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da? |
| | **Bai** - Hala dago HAPO-ren ordenazioan.<br><br>1 eta 4. Eremuetan planteatzen diren etxebizitzek ingurukoen perfila errespetatzen dute, eta bakoitzean bina etxebizitza planteatzen dira. 6. Sektorean bi tipologiako etxebizitza ordenatu dira: garapen baxuko 3 etxebizitza (bakoitzean 2 etxebizitzarekin) eta 4 eraikin ireki (gutxira 20 etxebizitzarekin, bataz beste eraikin bakotitzean 5 etxebizitza). Etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopurua mugatua izango da, eta elkar ezagutu eta harremanetan jartzea erraztuko du. |

DIMENTSIOA

| | |
|---|---|
| * | Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean? |
| | HAPOaren helburu orokorren barruan dago: “Plangintzak erantzun beharreko zorrotz aztertzea, aurreikusitako garapenari gehiegizko dimentsionamendua saihiestuz (…)”. Horren erakusgarri da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera, bizitegi-lurzoruetan Alkizan kuantifikatu daitezken etxebizitza kopurua 18 eta 85 artekoa dela eta HAPOan 30 egitea planteatu dela.<br><br>Gainera, AASStan ezarritako eskuhartze guztiak egikaritu dira jada eta azken 5-10 urtean ez da etxebizitza berririk eraiki herrian. Herriko biztanleria egoiliar gaztea finkatzeko beharra dago gaur egun, eta hori adierazi zuten herritarrek HAPOa idatzi baino lehen egindako partaidetza prozesuan. |
| * | Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen da? |

| | |
|---|---|
| | **Bai** - Hori da HAPO-ren helburuetako bat.<br><br>Hala ere, HAPO-k ezin du etxebizitzen esleipenerako baldintzak jarri. Planak etxebizitza horiek egin ahal izateko hirigintzako oinarriak jartzen ditu soilik. Plana behin-betiko onartu ondoren kudeaketa prozesu bat egongo da, burutzean etxebizitzak eraikitzeko eskubidea emango duena. Ondoren eraikuntza egin ahal izango da eta aldi berean etxebizitzak esleitzeko prozedura abiatu beharko da, esleipenerako baldintza-pleguak idazten hasiko dena. Plegu horietan finkatuko dira behin-betiko esleipen-lehentasunak.<br><br>Dena den, HAPOko H dokumentuko 45. artikuluak, bizitegi-erabilera autonomoen inguruan honakoa dio:<br><br>“Nekazaritzako ustiapenik ez duten baserri tradizionalen birgaitzea sustatuko da. Helburu horrekin baserri bakoitzean gehienez 4 etxebizitza ezarri ahal izango dira. baserriaren etxebizitzaren jatorrizko erabilera frogatu beharko da. Ezin izango da etxeko azalera eraikia zabaldu. (…)”.<br><br>Horrelako neurriek herritarrei alternatibak ematen dizkie herrian geratu ahal izateko, eta modu berean, baserriak mantentzeko aukera izan daiteke. |
| * | Etxebizitzen eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira? |
| | **Bai** - Hori da HAPO-ren helburuetako bat.<br><br>HAPO-ren Hirigintza Arau Partikularrak G dokumentuko 6 Sektoreari dagokion fitxako 4 atalean, Hirigintzako Antolamenduaren Gauzatzeko Araubide eta Kudeatzeko Era titulua duen horretan, Egikaritze araubidea zehazten da, Publikoa izango da eta kudeaketa era Propioa. Horren gain, jarduketa sistema Lankidetza Sistema izango da.<br><br>Xedapen horiek, HAPO-k 6 Sektorean aurreikusitako hazkuntzaren kudeaketa Udalaren esku egotea ahalbideratzen dute. Udalak duen helburua 6 sektoreko etxebizitza tasatuak Alkizako biztanleentzat izatea denez, etxebizitza horiek gauzatzearen erritmoa asmo horren betetzeari doitu dezake, eta Alkizako biztanleriaren hazkuntza begetatiboari egokitutako epeetan etxebizitza berriak eskaintzen joan daiteke. |

LEKUKOTZEA

| | |
|---|---|
| * | Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da? |
| | **Bai** - Hala dago HAPO-n.<br><br>Etxebizitzak 3 eremu ezberdinetan eraikitzea aurreikusten da. Gehienak, 30etik 26, 6.sektorean (gaur egun eremu urbanizagarria); beste bi 1. eremuan eta falta diren beste biak 4.eremuan hiri-bilbeko hutsuneak betetzeko eta herria kohesionatzeko. |

6.2.5.2. ETXEBIZITZA TURISTIKOAK

DIMENTSIOA

| | |
|---|---|
| * | Etxebizitza turistikoak eraikitzea aurreikusi bada horien proportzioari lotutako neurririk ezarri al da? |
| | **Ez dagokio:** ez dira egingo. |
| * | Aurreko urteotan (5-10 urte) etxebizitzak egin badira horien eragina neurtu da? |

| | |
|---|---|
| | **Ez dagokio:** ez dira egin. |

LEKUKOTZEA

| | |
|---|---|
| * | Etxebizitza turistikoak eraikitzea aurreikusi bada horien kokapenari lotutako neurririk ezarri al da? Adibidez, herri bizitzarako gune esanguratsuan ez egotea etxebizitza turistiko horiek, edo ohiko etxebizitza eskaintzarako egokia den lurzoruan ez eraikitzea. |
| | **Ez dagokio:** ez dira egingo. |

6.2.5.3. ESPAZIO LIBREA PUBLIKOAK

IZAERA

| | |
|---|---|
| * | Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira? |
| | 6. sektorean ordenatu da HAPOko espazio publiko ireki berria, lau etxebizitza blokeen arteko plaza herriko itxitura gisa planteatu dena; eta inguruko eraikinekin lotura egiteko espazioak, era berean natura espazioekin trantsizio eremua izango dena. Alkizako tamaina kontuan izanda hiri-bilbean integratuko da eta herritar guztientzat erakargarria eta irisgarria izan daiteke. |
| * | Oinezko sareak aurreikusi al dira? |
| | **Bai** - Hala ordenatzen dira HAPO-n.<br><br>Ordenazio berriek berekin dakarte oinezkoentzako ibilbide irisgarriak, mugikortasun sostengarriaren oinarria izango direnak. Egun daudenen jarraipena izango dira eta horien bidez herriguneko espazio libre eta zuzkidura nagusiekin lotzeko balioko dute. |
| * | Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da? |
| | **Bai** - Hala ordenatzen dira HAPO-n.<br><br>Lehen aipatutako ibilbide irisgarrien bidez egingo da. |
| * | Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da? |

| | |
|---|---|
| | **Bai** - Hala ordenatzen dira HAPO-n<br><br>B dokumentuaren 8.2. puntuaren arabera: *Ordenazio berri nagusia, 6. Sektoreakoa, espazio publiko erabilgarri bat eratzeko diseinatu da, duen tamaina txikia dela eta osagai gutxirekin eratu behar izan dena. Hala ere espazioak eskala nahikoa dauka auzoko bizitza sozialaren gunea izateko, etxebizitzen gehiengoa eta tertziarioa izan daitekeen ekipamenduko lokala bere inguruan biltzen direlako.*<br><br>8.3. puntuaren arabera*: Espazio libreak, oinezko ibilbideak eta berdeguneak izatea (kontuan hartzekoak eta irisgarriak), ekipamendu publikoko elementuez inguratuta eta integratuta, gai da ingurumen osasuntsu eta osasungarri bat antolatzeko, ingurunearen garapen jasangarria bultzatzen duena eta izaera inklusiboko ekintzak antolatzeko aukera ematen duena.*<br><br>8.5. puntuan: *Espazio publikoa, testuinguru soziofisiko jakin batean txertatzen da, hau da, xede dituen gizarte-taldeentzako diseinatzen da. Inklusiboa izateko, hiriak gizabanakoaren garapen integrala bermatu behar du: mentala, fisikoa eta soziala. Horregatik, hiria diseinatzeko oinarri gisa, bereziki interesgarria haurren begirada.*<br><br>*Bete den beste helburu bat ingurune fisiko eta sozial bat lortzea izan da, edozein haurrak jarduera ludikoa, indibiduala edo kolektiboa egiteko duen eskubidea, etxetik gertu eta helduen parte hartzerik gabe gauzatu ahal izan dezan. Alkizak tamaina eskuragarria dauka, ez du biztanle askorik, eta haur askok elkar ezagutzeko duten erraztasunak eraginda, haurrak laster hasten dira kalera modu independentean irteteko moduan.*<br><br>*Azkenik, berdegune irisgarriak, belaunaldien artekoak, hurbilekoak eta bizigarriak sortzeko eta babesteko hiri-ingurunea ere da.* |

DIMENTSIOA

| | |
|---|---|
| * | Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira? |
| | **Bai** – Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak agintzen duena bete da.<br><br>Horren gain, legeak eskatzen duen zuzkidura publikoetarako lurzoru proportzioa, bere osotasunean, bideak kenduta, espazio libreak osatzeko erabili da. |

LEKUKOTZEA

| | |
|---|---|
| * | Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu? |
| | **Bai** - E dokumentuan (Katalogoa) zehazten dira udalerrian dauden interes historiko-arkitektonikoko eta interes arkeologikoa duten ondasunak. Banan bana identifikatu eta zerrendatzen dira, arloko legeriak aurreikusten dituen babes baliabideak apligarrarriak izan diezaizkien (Euskal Kultur Ondarearen 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 legea, eta hori aldatzen duen 14/2023 legea).<br><br>Izan ere, hirigintza-plangintzaren helburuetako ba da, garapen neurri egokiak zehaztea jasangarritasuna oinarri hartuta. Horregatik, jardunketa berriek izan ditzaketen balio ekonomiko eta jabetza-errregimenaren inguuko eraginez gain, zaindu nahi izan da balio kolektiboa duten elementuen zaintza. |
| * | Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak? |
| | Bai - Alkiza herri txikia da eta eskuhartze eremuak hirigune historikoan (zuzkidura jardunketak) edota herriaren ipar-ekialdeko 6. sektorean kokatzen dira, hirigune historikoaren jarraian. Beraz, kokapen eta tamainagatik inguruan daude guztiak. |

| | |
|---|---|
| * | Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da? |
| | **Ez dagokio** - Espazio publiko berri bakarra aurreikusten du planak, 6. Eremuan; hiri lurzoru finkatugabean proposatutako eskuartzeetan leku faltagatik 2/2006 legeak ezarritako lagapenak monetizatu egingo dira eta 6. Eremuko espazio publikoa egiteko erabili. Aurrekoak kontsolidatuta geratzen dira. |

6.2.5.4. ZUZKIDURA PUBLIKOAK

IZAERA

| | |
|---|---|
| * | Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du? |
| | **Ez dagokio** - Planak inguru fisikoa ordenatzen du, bere lan esparru bakarra materia da, ezin die pertsonen asmo eta jokamoldeei eragin, markoa jartzen die soilik. |
| * | Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da? |
| | **Ez dagokio** - Hori planak ezin du erabaki. |
| * | Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da? |
| | **Ez dagokio** - Planak ezin du hori baldintzatu. |

DIMENTSIOA

| | |
|---|---|
| * | Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi al dira? |
| | **Bai** - Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak bere 79 artikuluan agintzen dituen hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian tokiko sistemen sareko zuzkidurak eta ekipamenduak jartzeko gorde behar diren lursailen gutxieneko estandarrak bete dira. |

| | |
|---|---|
| * | Azken 5-10 urteotan ekipamenduak egin badira horien eragina neurtu da? |
| | **Ez** - Eskola berritu da, baina ez da eraginaren azterketarik egin. |

LEKUKOTZEA

| | |
|---|---|
| * | Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute? |
| | **Bai** - Plan berriak herrigunea osatu egiten du. Horrek duen tamainarekin dena dago gertu. |

### 6.2.5.5. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Azkenik, aztertu da hizkuntzaren ikuspegitik zer neurri hartu diren plana gauzatzeari begira.

| | |
|---|---|
| * | Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak… |
| | **Ez dagokio** - Planak inguru fisikoa definitzen du soilik. Ez da zehaztu zein hizkuntza irizpide ezarriko diren obrak egiteko garaian: hizkuntza paisaia, komunikazioa, hizkuntzaren erabilera… Egoera soziolinguistikoari ahalik eta gutxien eragiteari begira, garrantzitsua da hasieratik abian jartzea hizkuntza irizpideak. |
| * | Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak… |
| | **Ez dagokio** - Planak inguru fisikoa definitzen du soilik. Ez da zehaztu zein hizkuntza irizpide ezarriko diren obrak egiteko garaian: hizkuntza paisaia, komunikazioa, hizkuntzaren erabilera… Egoera soziolinguistikoari ahalik eta gutxien eragiteari begira, garrantzitsua da hasieratik abian jartzea hizkuntza irizpideak. |
| * | Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak... |
| | **Ez dagokio** - Planak ezin ditu baldintza soziolinguistikoak definitu.<br><br>Lanen ondorengo garairako ere, etxebizitzak okupatuta egongo diren garairako, ez dira zehaztu hizkuntza irizpideak. |
| * | Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak... |
| | **Ez dagokio** - Planak ezin ditu baldintza soziolinguistikoak definitu.<br><br>Lanen ondorengo garairako ere, etxebizitzak okupatuta egongo diren garairako, ez dira zehaztu hizkuntza irizpideak. |

### 6.2.5.6. NEURRI OSAGARRIAK

| | |
|---|---|
| * | Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integraziori begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak... |
| | **Ez dagokio** - Planak ezin ditu baldintza soziolinguistikoak definitu.<br><br>Neurri zuzentzaileetan neurri osagarri edo aringarriak aurreikus ditzake Udalak planaren eraginei aurre egiteko, hala nola, helduen euskalduntzea, etorri berrien harrera eta hizkuntza-kokatzea, mintzapraktika, kontratazioen hizkuntza politika… |
| * | Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integraziori begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak... |
| | **Ez dagokio** - Planak ezin ditu baldintza soziolinguistikoak definitu.<br><br>Neurri zuzentzaileetan neurri osagarri edo aringarriak aurreikus ditzake Udalak planaren eraginei aurre egiteko, hala nola, helduen euskalduntzea, etorri berrien harrera eta hizkuntza-kokatzea, mintzapraktika, kontratazioen hizkuntza politika… |

### 6.2.6. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

#### 6.2.6.1. ONDORIOAK

Herriko izaera eta ohitura lingustikoen gain Alkizako HAPO-k izan dezakeen eragin bakarra biztanleen hazkuntzarena da.

Planak aurreikusitako Etxebizitza berriak herriak dituen hizkuntza-ohituretatik aldentzen diren lagunek betetzen badituzte hizkuntza ohituren gaineko eragina sor daiteke.

Eragin horren neurria faktore askoren menpe egongo da, biztanleria berriaren etorrera aldagai bat besterik ez da. Adibidez, Herrian Errotutako biztanleriaren gizarte-sendotasunak berebiziko garrantzia izango du hizkuntza ohituren bilakaeran. Eragina bi norabidetan eman daiteke.

Beste alde, etxebizitzak hartuko dituzten lagun guztiak ez dira kanpotarrak izango. Ez da hori Udalaren asmoa. Aitzitik, bertakoen errotzea da Udalak Bilatzen duena HAPO honekin. Horregatik hazkuntzaren aho-uhalak hartu nahi ditu, eta Planak aurreikusten duen Hazkuntza nagusia zuzenean kudeatu, etxebizitza berriak bertakoen egoitza beharretara bideratzeko.

Horren gain, hazkuntza hori ez da berehalakoa izango, denboran mailakatuko da. Alde batetik etxebizitzen eraikitzea aipatu ditugun behar horietara doituko delako denboran luzatuko delarik, eta beste aldetik etxebizitzek har ditzaketen biztanle guztiak ez direlako denak batera etorriko, familiak osatzen joango dira denbora tarte zehaztu ezinetan. Gutxienez, aurreikus daitezkeen biztanleen heren bat haurrak izango dira, hizkuntza ohitura definitu gabekoak, herriko eskolan heziko direnak, inguru euskaldun oso batean.

Zio guzti horiek eragin linguistikoaren garrantzia asko murriztuko dute, eta eramangarriagoa egingo dute etorri berrien integrazio linguistikoa, politika sustatzaile egokiekin lagundu daitekeena.

#### 6.2.6.2. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Aipatutakoak kontuan hartuta hauek dira ebaluazio batzordeak proposatutako neurri zuzentzaileak:

A. Etxebizitza, ekipamendu eta espazio publiko irekiak

A.1. Planifikazio garaian ezartzekoak

Izaerari lotuak:

Zerbitzuaren kudeaketa pribatua izanez gero, udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea.
Planaren helburuen artean hizkuntza eta hizkuntza ekologiari dagozkionak jasotzea.
Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehentasuna emateko formulak jasotzea. Adibidez, etxebizitza tasatuetan erroldaren irizpidea ezartzea, herrian erroldatuek lehentasuna izatea, etxebizitza eraikitzaileak herriko edo inguruetako kooperatibak izatea sustatzea.
Harremanetarako espazio komunitarioak bermatzea. Etxebizitza inguruetan espazio publikoak, haur parkeak, berdeguneak, baratz edo lorategi komunitarioa egotea, etxebizitza azpietan lokal komunitarioak egotea.
Lehentasuna ematea gazteek eta haurrek erabiltzeko dotazioei. Jolaslekuak eginez gero, ez izatea oso haur txikientzat bakarrik. Dotazio publikoetako jarduerek espazio publikoan eragina izatea.

A.2. Proiektua garatu aurretik eta egin bitartean

Lekukotzeari lotutakoak:

Obra lizentzia ematerakoan hizkuntza irizpideak txertatzea. Hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin eta udalarekiko harremanak euskaraz izan daitezen.
Obra arduraduna euskalduna izatea zehaztea lehiaketa publikoetan.
Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenestea.
Bertako toponimia erabiltzea etxe/kale/plaza izenak ezartzeko.
Komunikazio irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.
Udalak sustatutako etxebizitzetan hizkuntza paisaiaren inguruko irizpideak mantentzea bideratu.
Erosle edo interesdunei dagokien arreta euskaraz emateko aukera bermatzea.

B. Jarduera sozioekonomikoak

Zerbitzuei lotutako biztanleak etorriko direnean:

Zerbitzuen kudeaketa pribatua den kasuetan hizkuntza irizpideak ezartzearen garrantziaz ohartaraztea.
Itzulpen zerbitzua eskaintzea.

C. Jarduera soziokulturalak

Izaera/dimentsio/lekukotzeari lotutakoak

Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea helburuen artean jasotzea.
Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatzea.
Ondarearen baitan, euskara ere babestu beharreko ondare gisa hartzea.

### 6.2.7. ERANSKINAK

6.2.7.1. KOMUNITATEAREN KULTUR ETA GIZARTE BIZITZA

ERAGINA PLANA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragin mota:** | - | **Intensitatea:** | Baxua | **Balioa:** | 2,00 |

Plana Alkizari dagokio soilik.

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragin mota:** | - | **Intensitatea:** | Baxua | **Balioa:** | 2,00 |

Etxebizitzen egitasmo nagusia, aurreikusitako 30 etxe berrietatik 26 ordenatzen dituena, Udalak kudeatuko du, eta horrek etxebizitzen gauzatzea herriko biztanleriaren hazkuntza begetatiboen

**ERAGINA:** 4,00 - Baxua

6.2.7.2. TOKIKO EUSKARAREN EZAGUTZA

ERAGINA PLANA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragin mota:** | - | **Intensitatea:** | Baxua | **Balioa:** | 2,00 |

Planak Alkizan soilik du eragina.

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragin mota:** | - | **Intensitatea:** | Baxua | **Balioa:** | 2,00 |

Aurreikusitako hazkuntza gradualki egingo denez, eta etxebizitzen esleipenean Alkizako biztanleak lehentasuna edukiko dutenez, euskaldunen ehunekoa mantentzera joko du.

**ERAGINA:** 8,00 – Ertaina

6.2.7.3. TOKIKO EUSKARAREN ERABILERA

ERAGINA PLANA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.

**Eragin mota:** - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

Planak Alkizan eragingo du bakarrik.

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.

**Eragin mota:** - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

Etxebizitzen egitasmo nagusia, aurreikusitako 30 etxe berrietatik 26 ordenatzen dituena, Udalak kudeatuko du, eta horrek etxebizitzen gauzatzea herriko biztanleriaren hazkuntza begetatiboen

**ERAGINA:** 12,00 - Ertaina

6.2.7.4. HIZKUNTZA PAISAIA

ERAGINA PLANA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.

**Eragin mota:** - **Intensitatea:** **Balioa:** 0,00

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.

**Eragin mota:** - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

**ERAGINA:** 2,00 - Baxua

6.2.7.5. EGITASMOAREN KOMUNIKAZIOA

ERAGINA PLANA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.

**Eragin mota:** - **Intensitatea:** **Balioa:** 0,00

**ERAGINA:** 0,00 - Eragin positiboa

6.2.7.6. EUSKARAKO ZERBITZUEN ESKAINTZA

**ERAGINA:** 0,00 - Eragin positiboa

ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

# 7. GENERO-ERAGINARI BURUZKO AZTERLANA

## 7.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta EAEko Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onartutako jarraibideek (genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak) zehazten dituzte.

4/2005 Legearen 18.etik 22.era bitarteko artikuluetan eta Jarraibideetan aurreikusitakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan egiten diren arau-proiektuek eta administrazio-egintza jakin batzuek Generoaren araberako Eraginari buruzko Txostena izan beharko dute. Txosten hori araua sustatzen duen organoak egin beharko du.

Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak eduki behar ditu: alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta eragin nahi den testuinguru sozialean berdintasuna sustatzeko helburuari, HAPO-ren garatzeak ekarriko lizkiokeen ondorio positibo edo kaltegarrien gaineko azterketa, eta, bestetik, azterketa horretan oinarriturik, eragin negatiboa neutralizatzeko edo, hala badagokio, eragin positiboa indartzeko HAPO-n sartu beharreko neurri zuzentzaile eta aldaketak.

Genero-ikuspegia funtsezko eta zeharkako gaia izan behar da HAPOren fase guztietan eta antolamendu-proposamen guztietan.

Espazio publikoa bereziki garrantzitsua da genero-berdintasunaren ikuspuntutik, eremu horrek bizitza kolektiboa bermatzen duelako, eta, beraz, hor eraiki daitekeelako gizarte ekitatibo eta orekatu bat, herritar guztien segurtasuna, ongizatea eta bizikidetza bultzatuko dituena.

Lurzoru publikoa, ondasun kolektibo gisa, mundu guztiaren eskura dagoen ondasun bat da, eta ezinbestekoa da baliabide propio gutxien dituztenentzat. Espazio publikoak oinarrizko gizarte-premiak asetzen ditu, hala nola mugikortasuna, sozializazioa edo topaketa, eta horren kalitateak eta egokitasunak aukera eman dezakete jolaserako, kirolerako, dibertsiorako edo elkartrukerako.

Botere sozial eta ekonomiko txikiagoa duten emakumeek, beren eta bere ingurukoen ongizatea kudeatzeko, mendekotasun handiagoa dute baliabide kolektiboekiko. Espazio publikoek eguneroko premia ugariri erantzun diezaiekete, premia horiek kontuan hartzen badira, baloratzen badira eta horiei lekua emateko modua bilatzen bada.

## 7.2. MUGIKORTASUNAREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK

**1.-** Hirigintza-erregulaziotik, udal-mugikortasunaren lehentasunen ordena aldatzen laguntzea, hierarkia nagusia eraldatuz eta modu aktibo eta iraunkorrak – oinezkoak eta ziklistak – eta garraio kolektiboak lehenetsiz eta autoaren erabilera pribatua azken postuan kokatuz.

**2.-** Udalerrien arteko komunikazioa sustatzea garraio publikoa erabiliz.

**3.-** Herrigunean dauden koten artean irisgarritasun ez-motorizatua eta irisgarria bermatzea.

**4.-** Bizikleta bultzatzea, oinarrizko sare segurua bermatuz eta gainerako moduekin bizikidetza arautuz.

**5.-** Pasabideak arautzea, oinezkoen ibilbideen jarraitutasuna eta irisgarritasuna bermatzeko.

**6.-** Udalerriko puntu guztietara oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbidea bermatzea.

**7.-** Geralekuen kokapena, seinaleztapena eta argiztapena zaintzea, eta garraio publikoaren sarea egokitzea segurtasunaren ikuspegitik.

**8.-** Oinezkoentzako guneetarako sarbide motorizatua, larrialdietarako, garajeetarako edo zamalanetarako, arautzea.

## 7.3. IRABAZIZKO ERABILEREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK

**1.-** Etxebizitza babestua eskaintzea, baliabide gutxien dituzten biztanleen sarbidea bermatzeko.

**2.-** Bizitegi-eremuan hirugarren sektoreko hurbileko jarduerak egotea bermatzea, "logela-auzoak" saihesteko.

**3.-** Behe solairuetako erabilerak arautzea, merkataritza-lokalak eta gertutasun-jarduerak ahalbideratzea, hiri-bizitasuna, segurtasuna, hurbiltasuna eta eguneroko ondasunekiko irisgarritasuna bermatzeko balio duten heinean.

**4.-** Etxebizitza mota guztietan, tamaina edozein dela ere, honako jarduera hauekin zerikusia duten gai guztiak ondo konponduta daudela arautzea eta bermatzea: etxea mantentzea, arropa eseki eta garbitzea, jaki-tokia eta bizikletak, haur-orgak, gurpil-aulkiak eta adinekoentzako eta/edo desgaituentzako beharrezko ibilgailu elektrikoak gordetzeko lekua, etab.

## 7.4. ZUZKIDUREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK

**1.-** Ekipamendu publiko eta pribatuaren kontzeptua dibertsifikatzea eta zabaltzea, eta irtenbide aldakor berriak proposatzea, gizarte-premia aldakorrei eta udal-eremuek hirigintzaren, ekonomiaren edo gizartearen arloetan dituzten baldintzatzaileei erantzuteko.

**2.-** Gune eta ekipamendu publikoen kudeaketan eta ebaluazioan genero-ikuspegia aplikatzea, gune horiek berdintasunaren bermatzaile izan daitezen sustatzeko.

**3.-** Ekipamenduak kokatzeko baldintza zentralizatuak ezartzea, eremu irisgarri eta zentraletan kokatuko direla bermatzeko.

**4.-** Aurreikusitako ekipamenduen irisgarritasuna erraztea, komunikazio-modu aktiboei eta garraio publikoaren sarearekiko konexioari lehentasuna emanez, lehentasunezko ekintza gisa mendekotasun handiena duten biztanle-taldeei, adinekoei, desgaitasuna duten pertsonei eta haurrei zuzendutako zerbitzuak oinez eta bizikletaz eskuratzea.

**5.-** Ekipamenduen hirigintza-integrazioa sustatzea, kokapenari, neurriei eta diseinu arkitektonikoari erreparatuta, eta, ahal den neurrian, kanpoko espazioarekiko "itsuak" diren eraikinak saihestea; izan ere, irtenbide horrek hiri-ehunaren barruan pieza iragazgaitzak sor ditzake, inguruko espazio publikoari interesa eta segurtasuna kenduz.

## 7.5. SEGURTASUNAREN ARLOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO HELBURUAK

**1.-** Argi irakurtzeko moduko hiri-espazioak diseinatzea, biztanleen erdiek beldurrik izan ez dezaten edo beldurra dela-eta hiri-espazioaren erabilera eta gozamena murritz ez dezaten.

**2.-** Gizarte-kontrolik gabeko espazio marjinalak, urrutikoak edo mono-funtzionalak ezabatzea, hiri-hustasun gisa tratatuak, beldurra eta segurtasunik eza sortzen dutenak.

**3.-** Espazio publikoetako argiztapen-minimoak egokitzea, eremu infra-argiztatuak kentzeko.

**4.-** Bizitzaren dimentsio desberdinak erlazionatzea eta orekatzea: ekoizpena, kontsumoa, aisialdia, harremanak, zainketak, parte-hartzea, eskalaren, irisgarritasunaren, dentsitatearen eta nahasketaren bidez, eta, horrela, hurbileko tratua eta segurtasuna ahalbidetzea.

**5.-** Bereizketa espaziala ezabatzea, segurtasunaren kontzeptuari buruzko ikuspegi berria emanez.

**6.-** Inoren laguntza behar duten pertsonen zaintzaz arduratzea, eta esparru osoaren diseinuaren ardura izango da haurrek, adinekoek edo desgaitasunen bat dutenek espazioaren segurtasuna, autonomia eta erabilera librea zaintzea.

## 7.6. ONDORIOAK

Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren diseinuan genero-ikuspegia sartzera bideratutako helburu horien guztien ondorioz, erraz irakurtzeko moduko espazio publikoak diseinatu dira, bazterreko edo atzeko eremuak, eremu ilunak edo argiztapen txikiagoko eremuak saihestuz, oinezkoentzako zein bizikletentzako ibilbideak eta garraio publikoaren aukera etxebizitzetara hurbilduz eta ekipamendu publikoak hiri-bilbean tartekatuz.

**ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

## 8. HAURTZARO ETA NERABEZAROAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AZTERLANA

### 8.1. SARRERA

Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria arautzen duen urriaren 27ko 931/2017 Errege Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, hirigintza-planen eraginaren analisiaren memoriak, besteak beste, haur eta nerabeengan izango duen eraginari buruzko atal bat izan beharko du.

Horri dagokionez, adierazi behar da Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legea (2024ko abuztuaren 15ean indarrean sartuko dena) indargabetuko duena, bere zioen azalpenean ezartzen duela testu bakar batean bildu nahi dituela haur eta nerabeen alde jada aitortuta dauden beste arau-tresna batzuek, autonomikoak, estatukoak edo nazioartekoak, eta bereziki, berariaz arautu nahi dituela administrazioaren jarduna jarraitu behar duten printzipioak, eskubide horien erabilera eraginkorra sustatu eta defendatzeko.

Eskubide horien artean, 9. artikuluak honako hauek ezartzen ditu:

> *“Haurrak eta nerabeak indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aitortutako eskubideen titularrak dira, eta, horien artean, bereziki nabarmentzen dira, gainerako herritarrentzat bezala, bizitzeko eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, nortasuna askatasunez eta erabat garatzeko eskubidea eta berdintasunerako eskubidea.*
>
> *Halaber, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako, identitaterako, informaziorako, ideologia-askatasunerako, parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko, adierazpen-askatasunerako, dagozkien erabakietan entzunak izateko eta beren eskubideak defendatzeko eskubideen titularrak dira”.*

### 8.2. HAPOREN ORDENAZIOAREN AZTERKETA HAURTZAROA ETA NERABEZAROAREN IKUSPUNTUTIK

HAPO-ren ordenazioak hartzen duen barrutiaren azterketa bateratua behar du ulertua izateko.

Ordenazio berri nagusia, 6. Sektoreakoa, espazio publiko erabilgarri bat eratzeko diseinatu da, duen tamaina txikia dela eta osagai gutxirekin eratu behar izan dena. Hala ere espazioak eskala nahikoa dauka auzoko bizitza sozialaren gunea izateko, etxebizitzen gehiengoa eta tertziarioa izan daitekeen ekipamenduko lokala bere inguruan biltzen direlako.

Hiri-espazioaren elementu artikulatzaile horren gain, Alkizako herrigunearen zabaltzeak beste baldintzatzaile batzuk ere baditu, kokagune berri horretan bizitzeko modua zehaztuko dutenak.

Zehazki, garrantzi berezia dute honako alderdi hauek:

- Espazio libreak, berdeguneak.
- Oinezkoen ibilbideak

Sektoreko eraikinak, espazio libreak eta bideak, berdegunez inguratuta geratzen dira, horiek hiritartutako lurzoru eta landa-lurzoruaren arteko transizioa eratzen dutelarik.

Oinezkoen pasealekuak irisgarriak dira, eta ibilgailuentzako bideetatik aldentzen dira barrutiak duen desnibela gainditzeko behar den luzeera hartzeko. Sektoreko maila guztiak ibilbide irisgarrien bidez lotzen dira, haien artean komunikazio bizkorragoak ere badaudelarik.

## 8.3. HAURTZAROAREN ETA NERABEZAROAREN ESKUBIDEAK

Horrenbestez, hirigintza-garapen batek haurtzaroan eta nerabezaroan izan dezakeen eraginari dagokionez, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoak, V., VI. eta VII. kapituluetan jasotako eskubideak aztertzen ditu txosten honek, antolatutako guneen deskribapena ikusita. Hona hemen eskubide horiek:

• Aisialdi aktiborako eskubidea.
• Ingurumenerako eskubidea.
• Ingurunerako eskubidea.

### 3.1.- AISIALDI AKTIBORAKO ESKUBIDEA

Denbora libre aktiborako eskubideari dagokionez, hirigintza-antolamendu berri baten baliozkotasuna aztertzeko eta egiaztatzeko irizpideek, haurrei eta nerabeei dagokienez, jolaserako eta kirolerako eskubidea eskatzen dute; izan ere, haur eta nerabe guztiek dute beren adinari dagozkion atsedenerako, jolaserako eta aisialdiko jolas-jardueretarako eskubidea, garapen-prozesuaren funtsezko elementu gisa. HAPO honen ordenazioak ekipamendu publikoko espazioak aurreikusten ditu eta gaur egun daudenak babesten ditu, herri-eskolaren ondoan daudenei garrantzi berezia aitortzen dielarik.

Alkizako herriguneak, eta udalerria oro har, duten tamainarako kirol- eta ekipamendu-lurzati nahikoak daude. Udalak lurzati horien erabilerak behar bezala aztertu beharko dituzte, biztanleria osoak, eta, zehazki, haurren eta nerabeen segmentuak, behar dituen beharrak ezartzeko.

Instalazio horiek haurren eta nerabeen beharretara egokituta garapen psikomotorrari lagunduko diote, adinaren arabera, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen segurtasun-baldintzak errespetatuz.

Administrazioak denbora libre aktiboaren alorrean jarduteko printzipioek bermatu beharko dute, hirigintza-antolamenduak ematen dituen aukerak baliatuz haur eta nerabe guztiei aisialdirako aukera berdinak eskaintzeko, eta horretarako, izaera inklusiboko jardueren bidez, desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen aldeko diskriminazio positiboko ekintzak antolatuko dituzte.

### 3.2.- INGURUMENERAKO ESKUBIDEA

Haurrek eta nerabeek ingurumenerako duten eskubideari dagokionez, haurrek ingurumen osasuntsuan bizitzeko eta ingurumenaren garapen iraunkorrerako duten eskubidea onartzen da.

Horrenbestez, proposatutako antolamenduan bermatuta geratzen dira ingurumenaren arloko hirigintza-jarduketaren printzipioak. Espazio libreak, oinezko ibilbideak eta berdeguneak izatea (kontuan hartzekoak eta irisgarriak), ekipamendu publikoko elementuez inguratuta eta integratuta, gai da ingurumen osasuntsu eta osasungarri bat antolatzeko, ingurunearen garapen jasangarria bultzatzen duena eta izaera inklusiboko ekintzak antolatzeko aukera ematen duena.

### 3.3.- INGURUNERAKO ESKUBIDEA

Azkenik, ingurunea ezagutzeko eta bertan parte hartzeko eskubideari dagokionez, HAPO honek haur eta nerabeek beren herria ezagutzeko eta, oro har, beren inguruneaz eta, bereziki, haur eta gazteentzako ekipamenduetarako eremuez gozatzeko duten eskubide hori bermatzen du.

Horren guztiaren laburpen gisa, eta planteatutako hirigintza-antolamendua, urbanizazio-proiektuak eta espazio publikoen diseinua oinarri hartuta, Alkizako Udalak, bere eskumenen esparruan, hiri-espazioen plangintzan eta erabileran haurrek eta nerabeek dituzten behar espezifikoak aintzat hartzeko ekintzak sustatu ahal izango ditu, eta ondoriozko espazio publikoetan haur eta nerabeentzako eremu bereiziak egongo direla bermatuko du. Eremu horiek beren beharrizanetara, indarreko araudiak eskatzen dituen segurtasun-baldintzetara eta, nolanahi ere, desgaitasuna duten adingabeentzat irisgarriak diren hiri-altzariak izango dituzte, mugitzeko zailtasunak dituzten haur eta nerabeen parte-hartzea muga dezaketen arkitektura- edo hirigintza-oztopoak ezabatuko direla bermatuz, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean adierazitako baldintzetan.

## 8.4. HIRIGINTZA ORDENAZIOAK HAUR ETA NERABEEN GAIN DUEN ERAGINA

Orain arte deskribatutako hiri-antolamenduko elementu horiek guztiek eragin positiboa dute haurren eta nerabeen garapenean, eta, laburbilduz, honako modu hauek adierazten dira:

Alde batetik, gazteen garapen kognitiboa bultzatzen da; izan ere, espazio publikoak haien eskura jartzen dituen baliabide desberdinak erabiltzeko, horien ulermena behar da, eta horietaz baliatzeko erak ikasi behar dira jardute erabakiak hartu ahal izateko. Horrek gaitasun kognitiboak garatzea eta arazoak konpontzea sustatzen du.

Era berean, gazteei independentzia eta autonomia ematen zaie, bilakabide independenteko trebetasunak garatzeko aukera emanez eta beren buruarengan duten konfiantza areagotuz.

Gazteenen garapenerako beste faktore batzuk, HAPO-ren ordenazioari lotutakoak, osasun fisikoa hobetzea dira, joan-etortze era aktiboak erabiliz, bizimodu aktibo eta osasungarria sustatuz eta garapen fisikoari lagunduz. Era berean, ingurumen-kontzientzia indartu egiten da joan-etortze era iraunkorragoak esperimentatu eta erabiltzean, ingurumena zaintzearen eta haren aztarna ekologikoa murriztearen garrantziaz kontzientzia handiagoa garatuz.

## 8.5. TXOSTEN PROPOSAMENA

Azaldutako guztia ikusita, txosten honen edukia haurren ikuspegian oinarritzen da, hiriaren diseinuaren eta ebaluazioaren parametrotzat hartuta, eta bere helburua proposatutako antolamendua haurren eta nerabeen berezko eskubideetatik abiatuta ebaluatzea izan da.

Espazio publikoa, testuinguru soziofisiko jakin batean txertatzen da, hau da, xede dituen gizarte-taldeentzako diseinatzen da. Inklusiboa izateko, hiriak gizabanakoaren garapen integrala bermatu behar du: mentala, fisikoa eta soziala. Horregatik, hiria diseinatzeko oinarri gisa, bereziki interesgarria haurren begirada.

Bete den beste helburu bat ingurune fisiko eta sozial bat lortzea izan da, edozein haurrak jarduera ludikoa, indibiduala edo kolektiboa, egiteko duen eskubidea, etxetik gertu eta helduen parte hartzerik gabe gauzatu ahal izan dezan. Alkizak tamaina eskuragarria dauka, ez du biztanle askorik, eta haur askok elkar ezagutzeko duten erraztasunak eraginda, haurrak laster hasten dira kalera modu independentean irteteko moduan.

Azkenik, berdegune irisgarriak, belaunaldien artekoak, hurbilekoak eta bizigarriak sortzeko eta babesteko hiri-ingurunea ere da.

ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

# 9. JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN AZTERKETA

## 9.1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak 3. artikuluan ezartzen du lege horren aplikazio-eremua, eta adierazten du lege hori aplikatuko dela 2. artikuluan jasotako erakundeen kontratazio-planetan, -proiektuetan eta -prozeduretan. Haien barne-araudiak hura betetzeko beharrezkoak diren helburuak eta neurriak jaso beharko ditu.

Beraz, jasangarritasun energetikoari buruzko legeak jasangarritasun energetikorako arau-esparrua ezartzen du, efizientzia energetikoko eta energia aurrezteko neurriak eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzean oinarrituta, politika energetikoaren orientazio orokorrarekin bat etorriz.

Eremu objektiboari dagokionez, edozein erakunde publikok – udalak barne – kudeatzen dituen eraikin eta instalazioei, garraio eta ibilgailuei, energia berriztagarriei eta argiteria publikoari aplikatzen zaie legea. Testuinguru horretan idatzi da jasangarritasun energetikoari buruzko memoria hau, urbanizazio berrien azken jabea Alkizako Udala izango baita.

Jasangarritasun energetikoari buruzko memoria honen irizpide orokor eta oinarri gisa, adierazi behar da energia-iturrien ekoizpenak, garraioak eta eraldaketak ingurumenean duen eraginak ingurumen-inpaktu bat dakarrela berekin, eta, kasu askotan, arrisku bat dakarrela izaki bizidunentzat eta energia-prozesua gertatzen den ingurune gutxi-asko hurbileko pertsonentzat.

Ingurumen-inpaktu eta arrisku horiek handiagoak dira iturri konbentzionalentzat energia-iturri berriztagarritzat hartzen direnentzat baino, baina horiek guztiek nolabaiteko ingurumen-inpaktua edo lotutako ingurumen-arriskua dakarte, txikia izan arren, tokiko mailan edo maila globalean. Erregai fosilen erabilerarekin lotutako tokiko edo eskualdeko poluzioa, horien eraldaketa energetikoak eragiten duen berotegi-efektuko gasen isurpenak eragindako inpaktu globala, zentral nuklearren funtzionamenduarekin eta erregai nuklearraren ziklo osoarekin lotutako arriskuak, energia eolikoaren inpaktu paisajistikoa eta energia berriztagarrien artean lehen belaunaldiko bioerregaiei lotutako elikadura-arriskuak dira energia-iturri guztiak erabiltzeak dakarren ingurumen-inpaktuaren edo -arriskuaren adibide batzuk.

Bestalde, Europak eskatzen duenez, data jakin batetik aurrera eraikin berriek energia-kontsumo ia nulukoak izan behar dute, eta horrek esan nahi du energia-efizientziako maila oso handiekin eraikita egon behar dutela, neurri handi batean, in situ edo ingurunean ekoitzitako iturri berriztagarrietatik eratorritako energia erabili beharko dutelarik.

## 9.2. OTSAILAREN 21EKO 4/2019 LEGEAREN APLIKAZIOAREN AZTERKETA

Legearen 5. artikuluak egiteko kontuan hartu behar diren helburuak ezartzen ditu, besteak beste:

1. Energiaren erabileran efizientzia bultzatzea eta aurrezpena sustatzea, Europar Batasunak arlo horretan dituen arau eta jarduketen esparruan.

2. Energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko.

3. Jatorri fosileko eta nuklearreko energiaren ekoizpenetik pixkanaka bereiztea kontsumo nulura iritsi arte.

4. Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa sustatzea, motorizatu gabeko desplazamendu-aukerak eta ordezko erregaiak erabiltzen dituzten garraiobideak barne hartuta.

5. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, batez ere nitrogeno-partikula eta -oxidoen bidezko poluzioa, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurrien eta lege hau betetzearen ondoriozko energia-iturri berriztagarrien erabileraren ondorioz.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen energia-faktura, ekonomia-jarduerak eta bizitegi-sektorea murriztea.

7. Energiaren erabileran eta energia berrigarrien garapenean aurrezpena eta efizientzia areagotuko duten tekniken eta teknologien ikerketa eta garapena sustatzea, bai eta energia horien ezarpenean eta erabileran aurrera egitea erraztuko duten sistema elkartuena ere.

8. Energiaren erabilerak ingurumenean eta lurraldean dituen inpaktuak prebenitzea eta mugatzea, energia aurreztea eta energiaren erabileran efizientzia handiagoa dakarten teknikak eta teknologiak erabiltzea, eta, era berean, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

9. Energia-jasangarritasunaren ondoriozko betekizunak politika publikoetan integratzea, eta, bereziki, lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, etxebizitzaren, garraioen, industriaren eta energiaren politiketan.

10. Akordioak bultzatzea beste administrazio batzuekin eta partikularrekin, jasangarritasun eta subiranotasun energetiko handiagoa lortzeko.

11. Aurrezpen eta efizientzia energetiko handiagoak eta energia berriztagarrien erabilerak dakartzaten onuren zabalkundea.

12. Energiaren kudeaketa tokikoa eta komunitarioa bultzatzea.

13. Energia aurreztea, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta energia berriztagarriak sustatzea helburu duten zerbitzu eta produktuen erosketa eta kontratazio publikoa sustatzea.

14. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztearen eta energia berriztagarriak ekoiztearen edo erabiltzearen aldeko apustua egiten duten jardueren aldeko politikak eta araudiak sustatzea.

Bestalde, 7. artikuluak lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna motak ezartzen ditu, eta horien artean daude egiturazko antolamenduko planak, hiri-antolamenduko plan orokorrak, plangintza orokorra bateragarri egiteko planak, e.a..

Plan orokorrak 4/2019 legea bete behar du, eta baita ere Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretua, legea garatzen duena.

Bestalde, jasangarritasun energetikoari buruzko azterlanak alderdi hauek jaso behar ditu:

a) Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.

b) Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzeari buruzko ebaluazioa.

c) Mugikortasunaren azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren ordezko aukerak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak barne.

d) Kanpoko argiteria publikoa aztertzea, espazio publiko bakoitzerako argiztapen maila eta denbora egokiak ebaluatzeko.

Bestalde, 2. apartatuan aipatzen diren lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak legez ezarritako ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduraren baten mende jartzen direnean, ingurumen-ebaluazioko prozedura horren barruan sartuko dira eskatutako alderdiak.

Azkenik, hirigintza-tresnek hiri-inguruneetan, ordezko erregaien bidez propultsatutako ibilgailu elektrikoen erabiltzaileei energia-hornidura bermatzeko, erabilera publikoko birkarga-estazioak aurreikusi beharko dituzte, bai eta bizikleten erabilera eta aparkalekua errazteko espazioak ere.

HAPO honetako eraikin berri guztiak etxebizitzakoak dira. 4/2019 Legearen 43. artikuluak eta hori garatuz

254/2020 Dekretuko 37, 38, 39, 40 eta 41 artikuluek ezartzen dute etxebizitzara bideratutako eraikin berriek, babes publikokoek barne, bete beharreko baldintzak:

a) 37 artikuluaren arabera, titulartasun pribatuko bizitegi-eraikinek, dagoen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki beharko dute Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta.

b) 38 artikularen arabera, eraikinek banakako kontsumo energetikoa neurtzeko sistema eduki behar dute.

c) 39 artikuluaren arabera, itulartasun pribatuko etxebizitzako eraikin guztiek, jabetzak eraberritze garrantzitsua egin nahi badu, aldez aurretik, eraikinaren energia-auditoretza kontratatu beharko du, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko har litezkeen neurriak zehazteko, energia hornitzeko sistema zentralizatuak edo alternatiboak gehitzeko, baita energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko ere.

Honako jarduketa hauek hartuko dira eraberritze garrantzitsutzat:

Eraikinaren itxituren ehuneko 25 baino gehiagori eragiten dietenak.

Berokuntza, hozte-sistema edo etxeko ur beroa produzitzeko instalazio termikoa handitu edo eraberritzean, lanek sorgailuei eragiten dietenean.

Etxebizitza bakoitzean berokuntza, hozte-sistema edo etxeko ur beroa ekoizteko banakako sistema edukita ere, sorgailuen hiru laurdenak gutxienez batera ordezteko jarduketak egin nahi dituztenean.

d) 40 artikuluaren arabera, Toki-administrazioek, hirigintzaren arloko antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloan dituzten eskumenen esparruan, sistema energetiko zentralizatu edo alternatiboen bitartez energia hornitzeko azterketak sustatu behar dituzte, baita banako edo taldeko autokontsumo-sistemak ezartzeari lotutakoak ere, dagoen eraikin parkearen eraginkortasun energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa hobetzearren.

Hirigintzako garapen berriei dagokienez, toki-administrazioek, hirigintzaren arloko antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloan dituzten eskumenen esparruan, energia hornitzeko eta energia berriztagarriez baliatzeko sistema zentralizatuak aurreikusteko betebeharra ezarri beharko dute erregelamendu bidez.

e) 41 artikuluaren arabera, Lehendik dauden eraikinetako garaje komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzeko, arau honi jarraitu beharko zaio: ibilgailuen garajeetako instalazio elektrikoen zerbitzu-abiatzeen, handiagotzeen eta aldizkako ikuskatzeen espedienteak izapidetzeko argibideak ematen dituen Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2018ko irailaren 3ko Ebazpena.

## 9.3. PLANAK HARTUTAKO NEURRIAK

Kargatzeko edo erregaia hartzeko guneak jartzea jendearentzat eskuragarri, erabiltzaileei diskriminaziorik gabeko sarbidea ahalbidetzen dien ordezko erregai bat hornitzeko. Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 61 artikuluan xedatzen da urbanizazioetarako eta 14 artikuluan etxebizitzetarako.

Kanpoko argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa altuena izan dadin, Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 61 artikuluaaren 6. Puntuan xedatutakoak bete beharko dituzte urbanizazio proiektu berriek.

Mugikortasun jasangarria bultzatzeko urbanizazioetan bizikletak aparkatzeko instalazio babestuak jarriko dira. Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 61 artikuluaaren 6.5 Puntuan xedatzen da.

Eraikin berriek energia berriztagarriak sortzeko aukerak aprobetxatuko dituzte; eraikinen estalkietan plaka fotovoltaikoak jartzeko aukera aztertuko da eguzki-energia energia-iturri gisa erabiltzeko, eta eraikinetan beroa sortzeko energia geotermikoa edo aerotermikoa erabiltzea gomendatzen da. Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 15 eta 36 artikuluetan.

Garapen berriko 6 Sektorean energia termikoko sistema zentralizatua ezartzearen bideragarritasuna aztertuko da, hiri-beroko sare bidez iturri berriztagarriz sortutako energia etxebizitzako eraikin guztietan banatzeko. Hirigintzako Arau Partikularrak eta Antolamendu Xehatuaren Planoak G Dokumentuko 6 Sektoreko fitxan jartzen da baldintza, tokiko sistemen atalean.

Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 15 eta 36 artikuluetan, Alkizan HAPO honek ordenatzen dituen eraikin guztiei eragiten dietenak, berariaz aipatzen da eraikinek 4/2019 Legea eta hori garatzen duen 254/2020 Dekretua bete behar dituztela.

ERABAKIAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

# 10. ABIAZIO ZIBILARI BURUZKO 2591/1998 ERREGE DEKRETUAREN BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIKO ZEHAZTAPENEN BETETZEA

## 10.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA

Sustapen Ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko FOM/2617/2006 Aginduaren bidez (abuztuaren 9ko BOE, 189. zk.), Donostiako Aireportuaren Gida Plana onartu zen.

2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak gaur egungo idazkeran ezartzen duenaren arabera, bere eremuaren barruan aireportuko zerbitzu-eremua edo ezarritako zortasun aeronautiko edo akustikoen mende dauden, edo Aire Nabigazioari buruzko Legearen arabera egon beharko diren, espazioak barne hartzen dituzten antolamendu-planak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioari igorri behar zaizkio, planen hasierako onarpena baino lehen, ministerioak bere txostena egin dezan. Horretarako sei hilabeteko epea edukiko du dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Horretarako, plangintza izapidetzeko eskumena duen administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako txostena eskatu ahal izango du horretarako ezarritako bideen bitartez, eta horien artean dago Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren egoitza elektronikoa.

Konstituzio Auzitegiaren 2007ko martxoaren 1eko 46/2007 Epaiak babesten du Aireportuko Zerbitzu Zonari edo ezarritako zortasun aeronautiko edo akustikoen mende dauden edo ezarri behar diren inguruko espazioei eragiten dieten lurralde- eta hirigintza-planei buruzko txostenak egiteko betebeharra, bai eta plan horiek lotesleak izatea ere.

Araudi hauek aplikatu behar dira:

- Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/60 Legearen (176. BOE, uztailaren 23koa) eta aeronautikako zortasunei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuaren (69. BOE, martxoaren 21ekoa) arabera ezarritako zortasun aeronautikoak.

- Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailean jasotako zortasun aeronautikoen proposamena, Sustapen Ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko FOM/2617/2006 Aginduaren bidez onartua (abuztuaren 9ko BOE, 189. zk.). Zortasun aeronautikoei buruzko Dekretuan eta Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundean (NAEL) indarrean dauden irizpideetan oinarrituta definitzen dira zortasun aeronautikoak.

Zortasun aeronautikoen mapa hurrengo orrian ikus daiteke

## 10.2. ERABILI BEHARREKO IRIZPIDEAK

Alkiza osoa Donostiako aireportuko zortasun aeronautikoko eremuetan dago. Udalerriko iparraldeko bi heren gutxi gorabehera Hurbiltze Zapuztuko Airebide Nominala IAC3 marrak (marra horiak) eratutako zonaren barruan dago. Beste herena zona horren eta Hurbiltze Zapuztuko Kanpo Muga IAC3 lerroaren (marra gorriaren) artean geratzen da.

Honekin batera doan planoan ikus daiteke deskribatu dena. Planoak izaera arauemailea du, eta Donostiako aireportuko operazio-zortasunak definitzen ditu. Zortasun motaren arabera finkatzen dira itsas mailarekiko hurrengo elementuek gainditu ezin dituzten altuerak: eraikinak eta bere osagai guztiak, hala nola, antenak, tximiniak, aire girotuko ekipoak, igogailu-kutxak, kartelak, dekorazio-errematеak, etab., lursailen lur mugimenduak, objektu finkoak, hau da, zutoinak, antenak, aire-sorgailuak, horien palak, kartelak, etab., eta bideko edo trenbideko galiboak.




HAPO honek proposatzen dituen eraikitze ekimen berriak Alkizako herrigunean gauzatuko dira. Kontutan edukiz Herrigunea Hernioren magalean dagoela, gailurretik 1,5Km-tara, horren altitudea 1078m dela eta herriaguneko plazarena 342m dela; Kontutan edukiz aurreikusita dauden eraikinek herriguneko eraikin historikoen altuera ez dutela gaindituko, ziur da eraikin horiek, beraien osagai altuenak (antenak, tximistorratzak, aire girotuko ekipoak, igogailu-kutxak, kartelak, dekorazio-erremateak eta abar) barne, zortasun aeronautikoek finkatutako gutxieneko altitudeen azpitik geratuko direla, eta baita ere horiek eraikitzeko erabiliko diren garabiak

Hori gorabehera, 584/1972 Dekretuaren 8. artikuluaren egungo idazketaren arabera, lursailetik 100 metrotik gorako altuerara igotzen den edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa egiteko, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren (AESA) aldez aurreko erabakia beharko da, aireko operazioen segurtasunean duen eraginari dagokionez.

Aurrekoa ikusita, justifikatuta daude 2591/1998 Errege Dekretuaren egungo idazkeraren ondoriozko zehaztapenak.

Alkizan 2024ko apirilean

Talde Egilea

Migel Anjel Irazabalbeitia, Pedro Izaskun, Amagoia Azurmendi, Cristina Burgos, Borja Izaskun, arkitektoak

Teodoro Cacho, abokatua